

# B

BARREN

TOKIKOM

# Batu jaien sokara



**Oporretan eta jaietan ere,  
sailkatu zaborra gaika.**



ELGOIBARKO UDALA



Eman izena edukiontzi  
marroia erabiltzeko:

943 741 050 edo [arreta@elgoibar.net](mailto:arreta@elgoibar.net)













**Jai zoriontsuak!**



**Klinikan %15eko  
deskontua  
inplante  
tratamenduetan**

 Aldaz Hortz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta-puntako teknologia eskaintzen dizu

-  inplanteak eta hortz fijoak egun batean
-  ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
-  "invisaling" ortodontzi ikusezina
-  haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-**PADI**)
-  pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
-  interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte



# GOKI ERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK



Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587  
[goki@gokierreformak.com](mailto:goki@gokierreformak.com)

Irizar Ibilbidea, 1 behe 20570 BERGARA  
Tel.: 943 765 342 - Faxe: 943 765 216  
[bergara@gokierreformak.es](mailto:bergara@gokierreformak.es)

**Fatxadak - Teilatuak**  
**Bainugelak - Sukaldeak**  
**Igogailuak**  
**Gremioen koordinakuntza**

[www.gokierreformak.net](http://www.gokierreformak.net)

Ondo pasa San Bartolome jaietan!





## Busti euskaraz jaietan!



Sanbartolome jaiet hasiera emango dien txupinazoa botatzeko ohorea izango dut gaur. Aukera hori eskaini didate Elgoibarko Izarrak 50 urteotan gure herria euskalduna izateko egindako herri-ahaleginarengatik, eta gustura irtengo naiz udaletxeko balkoira.

Gozatzeko egunak izango dira gaur hasi eta abuztuaren 31ra artekoak. Gu izateko egunak. Elgoibartarrak eta euskaldunak gurela erakusteko egunak. Jaietan herri baten izaera azaleratzen omen da, eta nahiko nuke aurtengo San Bartolome jaietan inoiz baino euskara gehiago entzungo balitz Elgoibarko kale, plaza eta tabernetan.

Zergatik diot hori? Elgoibarko Izarrak 50 urte bete dituelako aurten. 50 urteotan jende askok lan egin

du Elgoibar euskalduna izateko, eta mende erdian botatako euskara-zirimiriak gure barruak busti egin dituela erakutsi behar dugu herriko euskaltzaleok.

Aurtengoa urte euritsuena izan da; azken urteetako euritsuena. Beharbada ez da kasualitatea izan, eta eguraldiak bat egin nahi izan du Elgoibarko Izarraren 50. urteurrenarekin. Aurten bota duen euri-tanta bakoitzak Elgoibar euskaldunagoa izateko egindako ahalegin-tanta bat gogorarazi digu.

Beraz, aterkiak batu, kalera irten, eta izan gaitezen inoiz baino euskaldunagoak aurtengo jaietan. Egin diezaiogun euskaraz trago bat eskatzera datorrenari; egin diezaiogun euskaraz berarekin dantzatzeko eskatzen digunari; egin diezaiogun euskaraz txaranga besarkatzen gaituenari; egin diezaiogun euskaraz, finean, jaia gurekin batera disfrutat nahi duenari.

Amaitzeko, gaurko txupinazoa Elgoibarren herrigintzan diharduzuen herritarroi eskaini nahi dizuet; kirolean eta kulturagintzan ari zaretenoi, bereziki. Horietako bat zen lagun eta lehengusu nuen Jose Alberto Gurrutxaga. Aurten ezingo ditut jaiak berarekin batera gozatu, baina nire oroimenean izango da beti.

Iñaki Konde  
Elgoibarko Izarrako lehendakaria

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:  
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Egin diezaiogun euskaraz jaia gurekin batera disfrutatu nahi duenari"**



# MILAR

## Ondo pasa jaiak!

# BIRE

Sebas  
Mendi  
Arnaldo  
Imanol  
Josu  
maite zaituztegu

ondo pasa  
ta gogoratu

# festa

edozer gauza ez da!

elgoibarko ezker abertzalea

PREZISIO MUNDU BAT



myl precision spindles  
& spindle repairs service

Talleres MYL, S.A.U

## Ondo pasa jaietan!

Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 **MENDARO**  
Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130  
E-posta:myl@myl.es · http:www.myl.es

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112  
Faxa: ☎ 943 743 704  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitatea: ☎ 943 743 704  
E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi · KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio · MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz · MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBAR UDALA



MENDAKURRI




Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





**Danele  
Sarriugarte**

Jaietako BARRENA dugula-eta, bar-katuko didazu, Mikel, bai-na tematika jarriko naiz, eta bikoizki gainera, batetik, festa-giroa, eta bestetik, nire betikiko temekin tematzen segitzea uzartuz.

Lehenik har ditzadan sanferminak, jaietan jaiak. Aurten ere harrotu dira hautsak eta nahastu dira bazterrak, bereziki sare sozialetakoak eta zenbait hedabidetakoak,

txupinazioan jazotako sexu-erasoak direla medio. Izan ere, algariaren maskararekin disimulatu nahi izan arren, eta probokazioaren aitzakia ustelarekin zuritzen ahaleginduta ere, emakume bati norbaiten sorbaldeen gainera igota dagoela eta eskura daukazula probestuta bularretakoa errebentatzea hori baita: e-ra-so-a. Izan ere, jaiak gozatu asmoz alkandora kendu duen emakume bati bularrak baboseatzea eta atximurkatzea hori baita: E-RA-SO-A.

Edonola ere jaietan badira bestelako gauza alaiagoak ere, ezta? Adibidez musika alaiagoa da, ezta? Jada ez nago ziur, pasa den hilean Miarritzen egindako kontzertuetan hamasei musikari inguru altxatu ziren oholtzara eta emakumea ez zen bat bera ere. Ez da kasualitatea eta ez da kalitatea.

### “Hori guztia iraultzeko bidea feminismoa da. Baita jaietan ere”

Egoera zeharo diferenteak badirudite ere goiko biek, erroa berbera dute, bi-biak direlako emakumeon zapalkuntza egiturazkoaren ondorio. Bata, bortitzago, eta bestea, lausoago; bata, agian aztoragarriago eta bestea, aldiz, konturatu-gabe-irensteko-errazago: zapalkuntza, hala ere. Ez da kasualitatea, botere-harremanen desoreka da. Ez da kasualitatea, matxismoa da. Ez da kasualitatea, genero-rolen diktadura da. Ez da kasualitatea, eta hori guztia iraultzeko bidea, esaten didatena esaten didatela, feminismoa da. Baita jaietan ere.



**Mikel  
Olaizola**

Jaietan ere geu garelako, Danele, agian geuago. Mozkortuta, drogatuta, euforiko, baina guretik dihardugu beti; desinhibituta, eta beraz dugun onena eta txarrena ateraz. Jarrera matxista, homofobo edo arrazistak barruan daramatzagu; azkenburuan, denok daramagu faszista bat barruan, ezta? Zibilizazioa den errepresioaren putzuak ilunak eta lohitsuak dira. Mugitzen ez diren urei kiratsa darie, hustubideak beharrezko zaizkigu hi-generako. Baliteke sanoena ez izatea urte osoko gurutzea astebeteko desfaseaz arindu nahia, baina tarte gozorik ere uzten digu, ala?

### “Gertu daukat kamiseta zuria, kentzeaz seriotasunaren maskara”

Sexu erasoek lekuko izan zen Iruñeako plaza, bai. Horren aurrean arbuio irmoena, eta eguneroko lana feminismoaren ildoan. Zer gehiago esan errepikakor suertatu gabe? Baina (fribolitatea barkatzen badidazu) aldarrikapenaren, umore onaren eta sinpatiaren testigu ere izan zen. Bai, uste dut jaietan badirela kontu alaiagoak (betaurrekoak erantzi gabe) baloratu beharrekoak

Gustatzen zait bezperako poz naturala (ia) denok herriratzean, soka-dantza solemnea, prozesio eta guzti (folkloriko-traditionalista naiz, badakizu), Txiki Eguneke metamorfosi e(t)nologikoa. Berdin sokamuturreko beldurra eta pasioa zein ume irribarretsuz inguratutako erraldoien kalejira. Nola ez gazteok gazteon neurriaren egindako eguna. Eta noski, Maalako gune askeko elkarlana eta jai-giroa.

Txupinazioa noiz lehertuko zain nago: prest dauzkate sanferminetan erositako buruko aterki koloretakoa eta antejo beltzak. Gertu kamiseta zuria, kentzeaz seriotasunaren maskara. Pulpito honetatik gomendio eta sermoi gehiago ez. Gozatu, eta inori kalterik egin gabe ibili! Altza petroleo!

**BIAK**  
ileapaindegia  
San Inazio, 4  
Tel.: 943 742 725  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

**Jai zoriontsuak!!**

**Jai zoriontsuak!**

**ARBEOA**  
INMOBILIARIA  
www.inmoarbela@euskalnet.net

San Frantzisko, 34  
Tel.: 943 74 84 27





# Meka

Lanbide Eskola

*Jai zoriontsuak,  
ondo pasatu eta indartsu etorri irailean lanera!*

## HIZKUNTZ SOLUZIOAK

[www.ils.es](http://www.ils.es)

### IRAILETIK HASITA 2013-2014 KURTZOIKO IKASTAROAK

- Maila guztiak.
- Titulu ofizialak.
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
- Talde murriztuak, enpresako klaseak.
- Ikastaroak atzerrian.
- Multimedia gela.
- Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.

[ils@ils.es](mailto:ils@ils.es)  
Azkue ouzoa (IMH)  
Tel.: 943 744 040  
Uporitzogo, 12 behea  
20870 ELGOIBAR

### ENPRESA ITZULPEN ETA INTERPRETazio ZERBITZUAK

- Esperientzia zabala duen lan taldea:
  - Teknikoa (mahina-erreminta).
  - Komertziala.
  - Nazioarteko proiektuak.
- Goi-teknologiaren erabilera.
- Zerbitzu azharra eta kalitatezkoa.
- Prezio lehiakorak.

## Ondo pasa jaiak!!

### Industry Language Services

inglés

francés

alemán

italiano

chino



INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



**Ondo pasa jaietan!**

**SAN ROKE KALEA, 20**  
**TEL: 943 744 457**  
**ELGOIBAR**  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK**

LO SAKONA ETA HORRENBESTEZ ATSEDEN HARTZEA ESTUKI LOTUTA DOAZ KOLTZOI ON BAT IZATEAREKIN. BEHAR BEZALA ATSEDEN HARTZEKO, ONDO AUKERATU BEHARRA DAGO KOLTZOIA, EZ DUGULAOK ALFERRIK BIZITZAKO ZATI HANDI BAT IGAROTZEN LOTAN. HORRETRAKO, KOLTZOIAREN GERUZEI ERREPARATU BEHAR DIEGU. BERAZ, ZERGATIK EZ DUGU MATERIALIK ONENETAN INBERTITUTUKO? QUERCUS DA AUKERAKETA FIN, DOTORE ETA ZORROTZENA.



Zure erosketak interesik gabe finantzatzen ditugu!



**NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA**

**ZELETA**  
**BARAZKIAK**



*Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

**Ortutik mahaira!**  
**Kalitatea bermatua!**

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserria.com](http://www.zeletabaserria.com)



# AMAIA TXURRUKA

KULTURA ZINEGOTZIA



*Blanka Salegi kultura teknikaria, Amaia Txurruka kultura zinegotzia, Alfredo Etxeberria alkatea eta Rikardo Garate hirigintza zinegotzia.*

## “Kultura zinegotzia naizenetik ardura gehiagorekin bizi ditut jaiak”

Elgoibarko Izarrak 50 urte beteko dituela-eta, Iñaki Konde presidentek botako du txupina aurten. Eta une horretan bertan hasiko da festa. San Bartolomeren omenez, ondo pasatzeko eta gozatzeko zazpi egun izango dituzte elgoibartarrek, eta horretarako ahalik eta egitarau osatuena prestatzen ahalegindu da Udaleko Kultura Saila. 145.000 euroko aurrekontua dute aurtengo jaiak, iazkaek baino %2 handiagoa, hain zuzen ere. Amaia Txurruka Kultura zinegotziak azaldu ditu egitarauari buruzko gorabeherak.

**Zein irizpide erabili dituzue aurtengo egitaraua osatzeko?**

Herritar guztientzako jaiak direla izan dugu kontuan batetik, hau da, ume, gazte zein nagusientzako. Era berean, urteetako tradizioak ere errespetatu egin behar dira; bezpera, San Bartolome, Txiki edota Baserritarren egunak, alegia. Horrez gain, aurrekontua ere kontuan hartu behar da. Aurten gainerako jaietan apur bat gehiago estutu dugu gerrikoa, eta horrek eman digu aukera sanbartolomeetako aurrekontua apur bat handitzeko. Hori guztia izan dugu kontuan, eta tradizio horiek errespetatu nahian, bi asteburu elkar-tu zaizkigu jaietan.

**Aurtengo jaiak sokamuturrekin amaituko dira irailaren 1ean. Zer dela-eta egin duzue aldaketa hori?**

Umeen eta jubilatuen eguna batera ospatu-ko direnez, sokamuturra hurrengo domekara aldatzea pentsatu genuen, bestela ekintzak pilatzen zirelako. Umeentzako entzierroa eta marrazki lehiaketa, esaterako, sokamutur-rekin batera tokatuko lirake. Aldaketa honekin, herrian oso finkatuta dagoen ikuskizun batekin amaituko dira jaiak. Gauza berriak probatu behar dira, eta ikusiko dugu zein emaitza ematen duen.

**Aurten ere Txiki Eguna astelehenera aldatu duzue. Zergatik?**

Txiki Eguna elgoibartarrentzat bereziki antolatzen den eguna da, eta ez da inoiz asteburuan ospatzen. Iaz zapatua izan zen 25a, eta hileko azken zapatua zenez, feria tokatzen zen. San Bartolome Egunak eta feria egunak agintzen dute egitarauan. Aurten domeka da 25a, eta normalean, domeka beti izaten da jubilatuen eguna.

**Gazte koadrilei txaranga osatzeko aukera eskaini zitzaion 400 euroren truke. Zein erantzun izan du ekimenak?**

Idea oso ona iruditu zitzaigun, gazteen parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko, baina ez du funtzionatu. Agian ez dugu asmatu egitasmoa planteatzerakoan edo baliteke berandu ibili izana. Gure asmoa ez zen txaranga sortzea, kaleak giroa baizik. Okerak zuzendu, eta saiatuko gara berriro.

**Behin baino gehiagotan entzungo zenuten egitarauan urteroko berdina dagoela. Zein zailtasun izaten dituzue egitarau originala prestatzeko?**

Sanferminak ere urtero berdina izaten dira, eta munduko jai onenak direla esaten da. Ur-

teroko ekintzek funtzionatzen badute, zergatik aldatu? Errotutako ekintzek harrera oso ona izaten dute herritarren artean.

**Musika eskaintza gutxitu eta kultur ikuskizunen aldeko joera hartu zenuten orain bi urte. Nolako emaitza izan zuen horrek?**

Emaitza oso ona izan zuela esango nuke. Txinatarren zirkua ikusten, esaterako, plaza jendez gainezka egon zen, eta aurten ere zirkua ikuskizun bat ekarriko dugu. Musika eta gainerako ikuskizunak egitarauko osagai garrantzitsuak dira. Klean antolatzen dira, doan, eta herritarrei gustatzen zaizkie.

**Txiki Eguna  
elgoibartarrentzat  
antolatzen da bereziki,  
eta ez da inoiz  
asteburuan ospatzen”**

**Aurten idi-probak berreskuratu dituzue.**

Bai. Hainbat herritar etorri zitzaizkigun ideia horrekin, eta antolakuntzan laguntzeko ere prest azaldu ziren. Interesgarria iruditu zitzaigun, eta aurrera egin genuen. Garai batean egiten ziren idi probak herrian, eta gaur egun ere landa auzoetako jaietan egiten dira. Elgoibarko herriak lotura handia du landa inguruko ohitura, kirol eta nekazaritzarekin. Idi-proben ideia ez genuen lekuz kanpo ikusi, eta probatzea pentsatu genuen.

**Gazteen Eguneako kontzertua Maalan izango da aurten. Nolatan? Zein harreman du Udalak Maalako Jai Batzordearekin?**

Gazteek urteetan egin duten eskariari erantzutea erabaki dugu, eta horregatik izango da kontzertua Maalan. Berez plaza baino gu-  
ne txikiagoa da, eta ez dakigu nola irtengo den, baina dena ondo joatea espero dugu. Maalako Jai Batzordearekin harreman ona daukagu. Udalak baliabide batzuk jartzen ditu beraien ekintzak antolatzeko, eta gero eta hobeto moldatzen gara. Lehen jai-alternati-  
boak izenez antolatzen zituzten ekintzak, baina, gure ustez, osagarriak izan daitezke. Horren bila joan behar dugu.

**Zein da egitaraua prestatzeko jarraitzen den protokoloa?**

Herritarrak ordezkatzeko dituen neurrian, herritarren ekarpenak jaso eta kontuan hartzen ditu Udalak. Bi hilabeteko epea jartzen dugu herritarren ideiak jasotzeko, baina oso proposamen gutxi egiten dituzte. Jaiak herritarrekin eta herriarekin lotura zuzena dute, eta herriko errealitatea kontuan hartzen da jaiak prestatzeko. Aurten, esaterako, Elgoibarko Izarrak 50 urte egin dituzenez, Iñaki Konde presidentek botako du txupina, eta Haritz euskal dantzari taldeak ere aipamen berezia izango du, 40 urte bete dituelako.

**Kultura zinegotzia zarenetik, desberdin bizi dituzu jaiak?**

Bai. Orain jaiak gehiago bizi ditut egunez, baina hori adin kontuagatik ere izan daiteke. Baina, egia da, lehen askoz ekintza gutxiagotara joaten nintzela. Orain saiatzen naiz ahalik eta ekintza gehienetan parte hartzen, nola antolatu diren ikusteko, okerrak zuzentzeko eta hurrengorako gauzak hobetzeko. Ardura gehiagorekin bizi ditut orain jaiak.

**Zer falta zaie sanbartolomeei, eta zer dute soberan?**

Agian, eguraldi onaren bermea falta zaie. Eguraldiak erabat baldintzatzen ditu ekintza batzuk; dela Txiki Eguneako kalejira, sokadantza... Bestela, egitarau aldetik denetik dagoela esango nuke. Soberan ez dut uste ezer dutenik. Baten bati ekintza edo egunen bat soberan dagoela irudituko zaio, baina beste batentzat, ezinbestekoa izango da hori bera. **Zein gomendio emango zenuke jai arrakastatsuak izan daitezen?**

Bizikidetzat da gakoa. Gozatzeko eta ondo pasatzeko egunak dira, baina betiere, atsedena nahi duten herritarrak errespetatu behar dira. Herritarren parte-hartzea eta inplikazioa ezinbestekoak dira. Nik uste dut jendez hartzeko duela parte ekintzetan. Disfrutatze-  
ko gogoia izatea izan daiteke gomendio egoki bat, baina gainerakoak errespetatuz.

**Ainhoa Andonegi**







# 50 URTEREN OSTEAN, IDI-PROBAK

Idi-probak izango dira aurtengo egitarauan berrikuntzarik nabarmenena, eta gainera, sekula proban ibili gabeko idiak ikusteko aukera izango dugu; 'debutanteak' izango dira idi-pare guztiak. Herritar baten ideia bati tiraka antolatatu ditu Udalak idi probak, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, izango dira 50 bat urte horrelakorik antolatzen ez dela. Abuztuaren 29tik irailaren 2ra jokatu dira probak, Sigmako aparkalekuan, 21:30etik aurrera. Domekan, baina, zaldi probak izango dira idi probaren ordez, 18:00etan. Sarrerak 15 euro balioko du.

Ainhoa Andonegi



2012ko Trinitateetan eginiko erakustaldian ateratako argazkiak. Kalebarren plazan.

**A**buztuaren 29an hasiko da idi-proba saioa, eta irailaren 2an amaituko da. Hamasei partaide izango dira, eta bakoitzak bere idi-parea ekarriko du probara. Idi gazteak dira, inoiz proban parte hartu gabekoak, debutanteak, eta horixe izango da sanbartolomeetako saioak izango duen erakargarrtasun handiena. Joseba Arrizabalaga EAJko zinegotziaren iritziz, jendeari hori gustatzen zaio: "Batean eta bestean ikusitako idiek ez dute sorpresarik ematen. Batean ondo dabilena, bestean ere bai, baina hauek Elgoibarren estreinatuko dira, eta hori izango da proba honen ezaugarri inportanteena".

Federazioko epailea etorriko da, lana legez egiten dutela ziurtatzeko, baina Elgoibarko saioa ez da sartuko urteko idi-proben ligan, hau da, ez da txapelketa ofizialerako puntuagarria izango. Hala

ere, ikuskizuna ziurtatuta dago, antolatzaileen esanetan.

Eguenetik astelehenera bitartean, probaleku bilakatuko dute Sigmako aparkaleku estalian. Lurra laua den arren, hori ikusi dute antolatzaileek lekurik aproposena. Egun bakoitzean hiru idi-pare arituko dira deman. 30 minutuan, 1.500 kiloko harriarekin egin beharko dute lan, eta plaza gehien egiten dituenak irabaziko du. 800 euroko saria jasoko du irabazleak; 700 euro bigarrenak, eta hirugarrenak 600 euro.

Domekan, idiek atsedean hartuko dute, eta zaldi-proba egingo dute. Bizkaiko hiru zaldiren erakustaldia izango da, eta bakoitzak 950 kiloko harria mugitu beharko du.

## 50 urte

Garai batean urtean hiru aldiz egiten ziren idi-probak Elgoibarren, eta antolatzaile-

leen arabera, proba "garrantzitsuak" izaten ziren. Trinitateetan, sanbartolomeetan eta Gabon Zahar ferian egiten ziren, Artetxeko edo Santa Klarako probalekuan. Urteekin, baina, galdu egin zen ohitura hori, eta auzoetako jaien barruan bakarrik egiten dira gaur egun idi-probak, Idotorben edo Aias-tian, esaterako. Orain dela urte batzuk Trinitate jaietan ere antolatu zuten dema Harri Beltzarekin, baina aurtengo jaietarako antolatu dutena bezalakorik ez da egin 50 bat urtean. Aurtengo saioa ondo irteten bada, datozen urteetan berriz ere antolatzeke asmoa erakutsi dute antolatzaileek.

## PARTAIDEAK

### EGUENA, 29 (21:30)

Roberto (Beriartua)  
Odriozola (Oartzun)  
Bolaño (Laudio)

### BARIXAKUA, 30 (21:30)

Jose Mari Izeta (Zarautz)  
Rafa Frias (Elorrio)  
Oliden (Orio)

### ZAPATUA, 31 (21:30)

Biskiz (Errezil)  
Olasagasti (Igeldo)  
Igeldo (Zumarraga)

### ASTELEHENA, 2 (21:30)

Julian Subinas (Itziar)  
Isidro jatetxea (Azkoitia)  
Izeta (Aia)  
Barriola (Asteasu)

### DOMEKA, 1 (18:00)

Zaldiak  
Bazeta (Berriz)  
Jose Jabier Beide (Etxebarria)  
Giñerrei (Amallo)



**Idi-probak antolatu dituzte sanbartolomeetarako, baina ez omen duzu parte hartuko. Zergatik?**


Ez daukat probarako moduko idirik, gazteegiak dira horretarako. Nire idi pareak 5-6 urte ditu, eta parte hartuko dutenak zertxobait zaharragoak dira. Datorren urterako prest izango ditut.

**Nola prestatzen dituzu idiak probarako?**

Etxean jartzen ditut bueltaka, hara eta hona. Errubera handi bat jartzen diet atzean, eta hari tiraka ibiltzen gara. Idien arnasa oso ondo neurtu behar izaten da. Arnasa kontrolatuta hartzen dutenean, probarako prest daude idiak.

**Noiz eta nola hasi zinen idi probetan?**

Orain dela 40 bat urte hasi nintzen, eta sari mordoxka bat ere irabazi ditut. Hemen inguruko herrietako proba askotan hartu izan dut parte; Azkoitian, Arraten... Elgoibarko Kultur Etxe aurrean ere ibili ginen orain urte batzuk, Trinitate jaietan. Familian ez da probarako tradiziorik egon, bai-



## JUSTO JUARISTI Artazo baserrikoa

na idiak beti izan ditugu eta proba kontu hori gustatzen zitzaidanez, neu hasi nintzen. Orain semea ere hasi da, eta suhia ere bai. Laguntzen didate proba kontu honetan, eta badirudi izango dugula segida etxean.

**Animalien defentsan dihardutenek esango dute idiek sufritu egiten dutela proban. Zer diozu?**

Idiek ez dute sufritzen. Ondo gobernatuta egoten dira idiak, ondo janda eta ondo zainduta etortzen dira probara. Akuilua bera ere mugatuta dago, punta txikiagoa dauka eta lehen esku biek in eragiten bazitzaion idiari, orain esku bakarrekin egin behar zaio. Arauak zorrotzak dira, eta betetzen ez dituenari txartela erakusten diote.

**Zer iruditu zaizu sanbartolomeetarako antolatu duten idi-proba saioa?**

Ondo ikusten dut. Polita izango da, eta uste dut izango duela arrakasta. Sasoi batean izaten ziren idi probak Elgoibarren eta jende asko batzen zen probalekuan. Arretzeko probalekuan proba handiak egiten ziren. Urtean hiru aldiz egiten ziren idi-probak Elgoibarren, eta kanpotik ere jende pila bat etortzen zen probak ikustera. Ni orduan gaztea nintzen parte hartzeko, baina ikustera joaten nintzen. Ohitura hori galdu

egin zen, eta aurtengoa egin dute berreskuratzeko ahalegina. Kanala jatetxeko jabeari bururatu zitzaien ideia, hura zalea da eta! Leku askotan galdu da ohitura. Azkoitian ere lehen indar gehiago zeukan idi-probak, baina behera etorrita dago. Orain ari dira han ere indartzen, afizionatu batek tira eginda, baina zaila da, udaletxean ez badago behintzat probarako afizioa daukan agintariren bat. Sanbartolomeetako idi-probak edukiko du arrakasta, baietzean nago.


**Sigmako aparkalekua aukeratu dute probarako eszenatoki. Zer iruditu zaizu leku hori?**

Lurra laua da, asfaltoa eta horrek gaiztotu egingo du proba. Lur adokinatua gainera harria hobeto mugitzen da, asfaltoak gehiago heltzen du, eta deskuidoan lurra bustita badago, are eta okerragoa izango da. Baina bestela lekua aproposa da. Gune estalia eta probarako modukoa dela uste dut.

**Aurtengoa ondo irteten bada, datorren urtean berriz antolatzeko asmoa erakutsi dute antolatzaileek. Orduan ikusiko zaitugu deman?**

Bai, datorren urtean bai. Penaz esan diot ezetz aurtengo probari, baina ezin denean, ezin da. Ikustera joango naiz, seguru.

**“San Bartolome jaietako idi-probak edukiko du arrakasta, baietzean nago”**





# Kultur eskaintza oparoa

Antzerkia, dantza-ikuskizunak eta musika izango dituzte herritarrek aukeran aurten ere. Hona hemen, puntuz puntu san-bartolomeetako kultur eskaintzaren gaineko jakingarri nagusiak.

## 'CHAMELEON' ETA 'NAUFRAGOAK'

Abuztuaren 23an, 23:00etan.

Kalegoen plazan.

Joseba Sarrionaindiaren testuetatik, eta Mikel Laboak, Jabier Muguruzak eta Ken Zazpiak haren hitzekin sortutako musikatik abiatutako koreografia da *Naufragoak* ikuskizuna. Josu Mujika koreografo elgoibartarrak sortu zuen obra hau Lekeitioko Kale Festibalaren enkarguz. *Chameleon* lanerako, berriz, bi koreografo handi bildu dituzte: Itzik Galili, nazioartean dantza garaikideko artistarik handienetakotzat hartu izan dutena, eta Jacek Przybylowicz, Poznango Operako Balleteko arte-zuzendaria, Europako dantza-konpainia handietan egindako lanagatik ezaguna. Bien estiloak batuta, kalitate eta fintasun handiko programa osatu dute, musika poetikoetan inspiratuta.



## 'GEZURTIAK' - TRAPU ZAHARRAK

Abuztuaren 24an, 19:00etan.

Kalebarren plazan.

Bi lagunek sortu zuten Trapu Zaharrak taldea orain hogeita hamar bat urte, eta ordutik izen handia hartu dute. Antzezle berriak batu dira taldera, eta hemen zerrendatzeko baino obra gehiago sortu dituzte. *Gezurtiak* da horietako bat. Errehabilitazio prozesuan dagoen gizon batek bere auzora egiten duen itzulera kontatzen du. Familia osoak gozatzeko moduko obra da, umorezkoa.

## PITANGA ZIRKU IKUSKIZUNA

Abuztuaren 24an, 23:00etan.

Kalegoen plazan.

Aire-akrobaziak, soka lauan eta oihalean, eskuz eskukoarekin uztartzen dituen zirku eta antzerki duo poetikoa da Pitanga. Egiten duten lana ez da tradizionala, ezta garaikidea ere. Nazioartean ospetsuak dira koadro finkoaren teknika oihaletara egokitu dutelako, aire akrobazien mugak desafiaturik eta zirku artei alderdi berri bat irekiz. Horizonte desberdinetakoak, Louise eta Oren artistak aire-akrobazia dinamikoetako espezialistak dira, eta elkarrekin teknika berriak lantzen eta ikertzen dihardute. Aho zabalik lagako dituzte elgoibartarrak euren ikuskizunarekin.

## HUMUS

Abuztuaren 24an, 23:00etan.

Maalan.

Humus taldea Tolosaldean sortu zuten 1998an, beste hainbat taldetan ibilitako hainbat lagunek. Metal estiloa lantzen dute. Hiruko eta lauko formatoan aritutakoak dira, eta musika ibilbide koherentea osatu dute, rock musikaren koordinadetan, diskoak eta emanaldiak tartekatuz. Ibarako gaztetxean eman zuten lehenengo kontzertua, eta 2000. urtean grabatu zuten lehenengo diska: *Pulper*. Ordutik beste hiru diska kaleratu dituzte: *Leihotik begira zain* (2004), *Lekua* (2008) eta *Saurius* (2013).



## ON

Abuztuaren 24an. Maalan.

ON Itsaso Gutierrez musikariaren proiektu berria da, Jauko Barik, Keike, eta Xarma taldeetan aritu eta gero sortutakoa. 2012ko martxoan sortu zuten taldea. Itsasok, Denis Alberdik (Keike, Brankan) eta Ibai Suarezek osatu zuten hirukotea. 2012ko udaberrian hainbat zuzeneko eskaini ostean, uztailean grabatu zuten aurreneko lana. 2013ko otsailean Ekaitz Vegas eta Ekhi Vegas gehitu ziren taldera. Rock melodikotik abiatuta hainbat errotan blaituriko musika jorratzen dute. Itsasoren





melodiek jendartean dauden hainbat kez-  
karen inguruko haserrea adierazten dute,  
emakumearen begiradatik eta kezketatik  
abiatuta.



### BATEK FAGO BATUKADA

**Abuztuaren 25ean, 22:30ean.**

**Kalegoen plazatik.**

Hasi eta bukatu, erritmo biziz, dantzaz eta sorpresaz betetako ikuskizuna da Bartzelonako Batek Fago batukada taldeak eskaintzen duena. Zortzi urtean 400 aktuziotik gora egin dituzte, gehienak Herrialde Katalanetan, baina Euskal Herrian ere aski ezagunak dira. Ikuskizun asko sortu dituzte, eta honako hau, Batek Fago, gaueko ikuskizuna da, perkusioa, suarekin eta malabareekin uztartzen duena.

### BIZARTEGIA

**Abuztuaren 25ean, iluntzean. Maalan.**

Talde berezia da Bizartegia, inondik inora. Elgoibarko musikariek osatzen dute taldea eta kontzertu inprobisatua da Maalan eskainiko dutena. Urteetan Iban Urizar, Patxi Zabaleta eta Andoni eta Ander Mujika anaiak izan dira taldeko kide, baina ez da talde itxia.

### KIKI, KOKO ETA MOKO

**Abuztuaren 25ean, 20:00etan.**

**Kalebarren plazan.**

1980ean Azkonan (Nafarroa) sortutako taldetik jaio ziren Kiki, Koko eta Moko pailazoak, 1988an Munduko Zirkoko pailazo ikuskizunean parte hartu ostean. Dantza, musika, pedagogia eta beste arlo batzuetako esperientziak lantzen zituen Azkona taldeak, kale giroko antzerkiaren bidez, eta

pailazoek bide hori jarraitu dute geroztik. Pailazo bakoitzak bere izakera du: KIKI pailazo jolastia da, KOKO alai eta MOKO inozoa. Pertsonaia hauek esketx ezberdinak aurkezten dituzte emanaldiaren arabera, zirkoko teknika-mota desberdinez baliatuz: monozikloa, joku malabarak, mazak, pilotak eta diabolokak besteak beste. Partaidetza sustatzeko ikuskizuna da.

### LISKER

**Abuztuaren 26an, 22:30ean.**

**Kalegoen plazan.**

Eibarko Jeiki eta Zima taldeetan ibilitako musikariek sortu zuten Lisker. Jeikik eta Zimak Lekeitioko hondartzan antolatzen zen Lekeitio Rock Jaialdian egin zuten bat, eta egun hartan sortu zen folk-rock talde bat eratzeko ideia. Jeikiko Ernesto Gomez (ahotsa eta gitarra akustikoa) eta Jabier Zabala (baxua) eta Zimako Julian Alberdi (gitarra elektrikoa) eta Josean Salado (bateria) batu ziren Liskerren, aurrez ezein taldetan aritu gabeko Jesus Gil (flauta) kide berriarekin batera. Donibane Lohizuneko Bacchanales estudioan grabatu zuen lehen diskoa Jean Phocas soinu teknikarierekin, eta aurkezteko, hainbat kontzertu eman zituen garai hartan zeuden bi rock talde arrakastatsuenekin, Errobi eta Itoizekin. Lemoizko zentral nuklearraren aurka 1980an Bilbon egindako Herri Topaketetan, Lekeitio Rock Jaialdian eta Espainiako Asfalto taldearekin ere jo zuen Liskerrek. Rock progresiboa, hard-rocka eta folk musikaren eraginak uztartu zituen taldeak diskoa osatzen duten bost kantu luzeetan. Etenaldi bat izan zuten gero, eta Jose Batrik ordezkatu zuen Ernesto Gomez, jazz fusionera aldatu ziren. Euskal Herrian 80ko hamarkadaren hasieran nagusitzen ari zen rock giroan Liskerren proposamenak lekurik ez zuela iritzita, kontzertuak emateari utzi, eta berbenak eskaintzea erabaki zuen.

### HESIAN

**Abuztuaren 30ean, ZZ Blues Band taldearen ondoren. Kalegoen plazan.**

Etxebe (bateria), Xabi Seko (baxua) eta Franek (gitarra eta ahotsa) osatu zuten taldea, 2006an. Bertsioak egiteari ekin zioten, baina buruan beste zerbait zuten. Amets eta Erik gehitu zitzaizkien taldera



gero, eta *Maite dugu* lehen kantua sortu, *Musikaz Sakana indartuz* bildumarako. Etxarriko gaztetxean eskaini zuten aurreneko kontzertua, eta berehala tronpeta jotzaile bat, saxo jotzaile bat eta tronboi jotzaile bat gehitu zitzaizkien. 2007ko ekainean grabatu zuten lehen diskoa, Iruñean. Orduko kantuek eta gerora grabatu dituztenak guztiek eguneroko kontuei egiten diete erreferentzia, gai sozialei bereziki. Hasiera hartatik taldea aldatuta dago, eta bosgarren lana kaleratu berri dute, zuzeneko batean grabatutakoa: *Hesian zuzenean. Hemen eta orain*.

### ZUHAITZ ZATITXUAK BLUES BAND

**Abuztuaren 30ean, 23:00etan.**

**Kalegoen plazan.**

Laukote bat dira, eta 2011ko udan hasi zuten euren ibilbidea. Gaztetatik aritu dira elkarrekin musika egiten, baina bluesarena esperientzia berria dute losu, Gaizka, Juan eta Joanesez. Zortzi kantako lan bat dute grabatuta, eta hortan blues, funk eta R&B doinuak lantzen dituzte, "melodia gazte eta freskoak".



### OIHAN VEGA

**Abuztuaren 31n, 19:30ean eta 23:00etan.**

**Kalegoen plazan.**

Oihan Vega telebistako aurkezle eta irratiko esatari ezaguna Euskal Herriko DJ erreferente bilakatu da azken urteotan 'diskofesta' ospetsuarekin. Euskal Telebistak eta Euskadi Gazteak sustatuta, Euskal Herriko disko festarik handienetan izan da. Telebistan lan egin izanagatik duen ospeagatik batetik, eta Gaztea irradian aurkezten duen saio arrakastatsuegatik, bestetik, plaza guztiak goraino betetzen ditu. Bi saio egingo ditu Elgoibarren: iluntzean, umeentzat, eta gauean helduagoentzat.







# IHARDUN

MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



## Makina bereziak

Albitxuri, 1 • 3. pabilioia, K-L  
Tel.: 943 74 44 66 • Faxa: 943 53 14 74  
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net



**PINTXO HOTZAK ETA BEROAK  
RABAK,  
RAZIOAK,  
OGITARTEKOAK**

***Ondo pasa jaietan!***

Foruen plaza, 5  
Tel.: 943 257 448



***Jai zoriontsuak denoi***



# GABILONDO

INMOBILIARIA AGENTZIA  
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola  
Jose M<sup>a</sup> Azpeleta Iturricastillo

**HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA**

SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR - Tel: 943 74 44 67



SASI GUZTIEN GAINETIK  
Elgoibar martxan

bildu  
**FESTARA!**

ehbildu



GUZTIONA  
ZEURIA  
HERRIARENA

ELGOIBARKO  
HERRI ESKOLA



**ONDO PASA JAIXAK!!!**



**PNEUMAX**, S. A.

UJASSO NAIESA, EDIF. 10, PAB. 02-03-04  
20870 Elgoibar (GIPUZKOA)  
Teléfono: 943 74 41 44 - 943 74 41 74  
Fax: 943 74 40 76  
E.mail: pneumax@pneumax.es  
Web: www.pneumax.es



**AUTOMATIZAZIO  
NEUMATIKAKO OSAGAIK**





# ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



**INFORMA ZAITEZ! AUTOKO AZTERKETA TEORIKOA 17 URTEREKIN!  
IKASTARO TRINKOAK!**



- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela

## ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO TEORIKAKO  
IKASTARO TRINKOAK**

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

*Hainbeste itxarondako festak iritsi dira.  
**Ondo pasa!***



2013

# San Bartolome



Irak

Haritz Fuskal Danzari Taldea

Elgoibar

**A**itziber Dominguezek irabazi du sanbartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa, eta 700 euroko saria eskuratu du. Guztira, 24 lagunek hartu dute parte. Umeen lehiaketan hamar lagunek parte hartu dute, eta hauek izan dira irabazleak: Eider Cerdeira (11 urte), Telmo Roldan (9 urte), Haritz Vallejo (8 urte), Alex Roldán (5 urte), Nahia Baskaran (5 urte) eta Nora Beitia (4 urte).



*Maria Urizar*

- Ileapaindegia  
- Sollariuma

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.  
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar  
mariaileapaindegia@hotmail.com



**DOÑA MERCEDES**

San Frantzisko, 21  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 742 652  
943 742 137

*Ondo pasa jaiak!*

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA


Berogailuak  
Gasa

Aire egokitsua  
Erregai likidoak

Mendaron zein  
Elgoibarran  
ematen dugu  
zebitzua

Azpigoeta 7 behea - Mendaro  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzatellabide@hotmail.com

*Ondo pasa jaiak!*



*Ondo pasa jaiak!*

R. Muguruza, 29 - 5ª A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa  
Tel.: 943 741 853 - Fax 943 531 386

**AUTOCARES  
REVERT**

JUAN 615 768 170  
NEME 607 298 037  
ANDRES 615 768 169  
VICENTE 607 497 343

**B Beristain**  
LOGISTIKA BANAKETA  
Tel.: 902 180 635

*Ondo pasa jaiak!*

**Tximak**  
ILEAPAINDEGIA

Kalamua, 2 · Tel: 943 744 357

*Ondo pasa jaietan!*

## SANBARTOLOMEAK 2013

### ABUZTUAK 22, *eguna*

#### 18:00 ELGOIBARKO HIRIA FUTBOL TXAPELKETA

CD Elgoibarrek antolatuta, CD Elgoibarrek eta Anaitasuna taldeek jokatuko dute Mintxetan.

#### 19:00 ARGAZKI ERAKUSKETA

Haritz Euskal Dantzari Taldeak antolatuta, Iñaki San Martin Soarteren *Soka-dantza* erakusketa jarriko dute ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan, irailaren 6ra arte.

#### 19:30 ARGAZKI ERAKUSKETA

Kirol argazkien lehiaketako lanen erakusketa. Kultur Etxeko sotoan egongo da ikusgai, abuztuaren 31ra arte.

#### Jarraian, KARTEL LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Kultur Etxean. Kirol argazkien lehiaketako sariak ere banatuko dituzte ekitaldi berean.

## San Bartolome Bezpera

### ABUZTUAK 23, *barixakua*

#### 9:15 MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA

Elite mailako amateurrentzat (19-23 urte). Gure Bide elkarteak antolatuta. Lehendakari Txapelketarako puntuagarria. Irteera: Kalegoen plazan. Helmuga: Pedro Migel Urruzuno kalean, 12:00etan. Jarraian, sari banaketa, Kalegoen plazan.



#### 13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI JOTZEA

Udaletxean Ikurrina jasoko dute jaiak hasteko, Elgoibarko Izarrako kideek botako dute txupinazoa, elkarteak 50 urte egin dituelako.

# Egitaraua



**Ondoren, KALEJIRA**  
Mauitxa txarangarekin.

**16:00-19:30 QUAD-AK**  
Kalegoen Plazan.

**16:00 HAURRENTZAKO PARKEA**  
Kalegoen Plazan Aita Agirre plazan. Euria bada, Sigman.

**16:30 SORPRESA**  
Zaharren biltokian.

**17:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK, ZEZENKILETEKIN**  
Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

**19:00 KALEJIRA**  
Mauitxa txarangarekin.

**20:00 SALBEA**  
Inazio Bereziartuaren salbea, parrokian. Udaltzatza San Bartolome parrokiara joango da, "Alkate Soinua"-k lagunduta.



**23:00 DANTZA**  
'Chameleon' eta 'Naufragoak' ikuskizuna, Dantzaz konpainiarekin. Kalegoen plazan.

**Imprenta Arrillaga**

Inprimaketa: Offset  
Digitala

Enkarga gorbidapenak  
Hilera orgarriak  
Gizata txartelak  
Kartelak - etiketak  
e.a.

Fotokopiak

Koloretan  
Txan-beluzan

 **Trenbide Kalea, 13 - behea**  
Tel.: 943 74 01 87  
e-posta: arrillagask@euskainet.net

**ARAMBURU**  
BITXIDENDA

**Ondo pasa jaiak!**

San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

**IRIONDO KIROLAK**

San Frantzisko, 37 Tel.: 943 74 09 56

**Ondo pasa jaiak!**

**AGURTZANE**  
c.b.  
ilepaindegia

**Fotodepilazioa egiten dugu**

**ONDO PASA JAIAK!**

Santa Ana, 18  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 741 864

URDUTEGIA - JANARIBENDA

**DORI**

Errosario K. 29 ZK. Tel. 943 74 71 92  
ELGOIBAR

**Ondo pasa sanbartolomeetan!**



**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPUNKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX





TXANKAKUA txartelarekin erosterakoan, puntuak bildu eta operak irabaziko dituzu.

Partekatu katalogoan

IZEN KOMERTZIALA

- ALIRE ESTETIKA
- ARANBURU BITXIDENDA
- ARAURI LURRINDEGIA
- AZKUE ARGAZKI DENDA
- BURGOA SOMOZA ARRAINDEGIA-PEBSCADERIA
- CASA ASTIGARRAGA
- DOÑA MERCEDES
- DORI URDAITEGIA
- ECENARRO MERZERIA
- FARMA APRAZ
- FEDEROPTICOS IKUS
- FERPI MODAK
- G & M JANTZIDENDA
- GARATE JANTZI-DENDA
- GARBIRE ESTETIKA
- GOIARA DROGERIA
- HAZTEN
- IPINTZA MARGOAK S.L.
- IRIONDO ALTZARIAK
- IRIONDO KIROIAK
- KALA LORADENDA
- KARKIZANO
- LANBROA
- LANDA HARATEGIA
- LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
- LETE
- LUVIK OINETAKOAK
- MG BURDINDEGIA
- MOMA JANTZIDENDA
- MURUAMENDIARAZ
- OINEZ UMEEN ZAPATA DENDA
- ONGI ITURGINTZA
- ORTOPEdia ITZIAR BARASKETA
- PATXI HARATEGIA
- PITXINTXU
- SARA JANTZIDENDA
- SKANDALO KORTSE-DENDA LENTZERIA
- URRATSAK OINETAKO DENDA
- UZURI OPTIKA
- ZAZPI INFORMATIKA
- ZELETA BARAZKIAK
- ZIUR

TELEFONOAK

- 943 531 636
- 943 742 535
- 943 741 789
- 943 740 848
- 943 748 130
- 943 743 268
- 943 742 652
- 943 741 192
- 943 742 619
- 943 743 958
- 943 743 734
- 943 740 815
- 943 033 476
- 943 741 128
- 943 743 132
- 943 741 133
- 943 743 347
- 943 740 440
- 943 741 234
- 943 740 896
- 943 744 516
- 943 740 549
- 943 740 826
- 943 742 758
- 943 740 054
- 943 744 199
- 943 744 345
- 943 740 831
- 943 108 104
- 943 740 345
- 943 031 101
- 943 254 522
- 943 743 962
- 943 743 994
- 943 743 266
- 943 743 555
- 943 743 995
- 087 077 396
- 943 740 359
- 943 743 787
- 943 743 022
- 943 531 265

Diru laguntzailea



INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

# San Bartolome Eguna

ABUZTUAK 24, *zapatua*

**9:00** DIANA

Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

**9:45** UDAL TXISTULARI BANDAREN DIANA

**10:00** UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA



**10:45** ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA

Udal Musika Bandak, txistulari taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome parrokiara joango dira, meza nagusira. Mezatan parrokiako abesbatzak eta Haritz dantza taldeak hartuko dute parte.

**11:00** MEZA NAGUSIA

Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin, Kalegoen plazan.

**Jarraian, SOKADANTZA**

Udalbatzak, parrokiako abesbatzak, txistularien bandak eta Haritz dantzari taldeak hartuko dute parte.



**Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**

Kalegoen plazan.

# Egitaraua

## 16:00-20:30 HAURRENTZAKO PARKEA

Aita Agirre plazan (euria egiten badu Sigman).

## 17:30-19:00 ERRALDOIEN, BURUHANDIEN ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA

Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin batera.

## 18:00 PROFESIOALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK

Kalegoen plazan. Euria bada, Ikastolako frontoian.

## 19:00 ANTZERKIA

Gezurfiak ikuskizuna, Trapu Zaharra taldeekin. Kalebarren plazan.

## 23:00 ZIRKU IKUSKIZUNA

Pitanga zirku ikuskizuna. Kalegoen plazan.

## Jubilatuen eguna

### ABUZTUAK 25, *domeka*

#### 12:00 HEGALUZE PARRILLADA

Eusko Labeldun hegaluzea, parrillan. Kalebarren plazan. Antolatzailea: Elgoibarko Danborrada Atabal elkarte.

#### 12:30 JUBILATUEI ESKAINITAKO MEZA

San Bartolome parrokian.

#### 14:30 JUBILATUEN BAZKARIA

Olaizaga kiroldegian, Eguren orkestrak girotuta.

#### 19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA

Haritz dantza taldeak antolatuta, 16 urtetik gorakoentzako. Kalegoen plazan.

#### 22:30 BATUKADA

Batek Fogo taldearekin. Kalegoen plazatik.



# TANTAKA

## TABERNA

**ENTSALADAK  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK  
RAZIOAK**

*Ondo pasa sanbartolomeetan!*

Aita Agirre, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 030 736

# HAIR'S

## ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 531 279

Astearteetan jubilatuen eguna:  
Orraztu 8 €  
Garbitu, moztu eta orraztu 16 €

*Ondo pasau jairak!*

A stylized, artistic illustration of a woman's face with long, flowing, wavy hair. The style is reminiscent of mid-20th-century graphic design.

# ASESORIA

## GOAR

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoría laborala
- Abokatuak

San Bartolome, 2 behea  
Tel: 943 742 674 / 943 740 234  
Faxa: 943 742 129  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
asesoriagoan@euskaltel.net

# Txintxo

## INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa) Tel: 943 742 674



# USATORRE

## Taberna

San Antolin, 6  
943 741 799

Jai  
zoriontsuak  
igaro!



CORDON  
VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak ezarria  
Lantekua: egur, aluminio, PVC  
Pintura orokorra



San Roke, 7 behea  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modulua  
Tel. 943 740 570

# ELENA

## ileapaindegia

### Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189



# karkizano

Ondo pasa sanbartolomeetan!

San Frantzisko, 14  
Tel.: 943 740 349  
Elgoibar



# AZALEA

 Edergintza  
M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 740 310

## HIDRODEPURAZIOA

Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA  
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizarizkoa) - Mikropigmentazioa



ZAZPI

INFORMATIKA

ONDO  
PASA  
JAIK!

Bernarde Ezeasne, 15 behea  
Tel. / Faxa: 943 74 37 87  
E-mail: zazpi@telefonika.net

20870 - ELGOIBAR  
(Gipuzkoa)

# SANBARTOLOMEAK 2013

## Umeen eguna

### ABUZTUAK 25, *domeka*

**11:00 HAURRENTZAKO ENTZIERROA**  
King-Kongetik Aita Agirre plazaraino.

**Jarraian, ZESENTXOAK ETA PONIAK**  
Aita Agirre plazan.



**11:30-13:45 AIRE LIBREKO MARRAZKI LEHIAKETA**  
Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea.

**14:00 HAURRENTZAKO HERRI BAZKARIA**  
Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea. 7 urtetik 14ra artekoentzat. Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du, eta freskagarriak eta postrea banatuko dituzte.

**14:30 HAURRENTZAKO PARKEA**  
Kalegoen plazan. (Eurria egiten badu, Sigman).

**18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**  
Kalegoen plazan.

**Jarraian, ERRALDOI, BURUHANDI ETA ZEEN-  
ZIKLETEN KALEJIRA**  
Mauxitxa Txarangarekin batera. Haurrak mozorrotuta joateko eskatu dute.

**20:00 PAILAZOAK**  
Kiki, Koko eta Moko. Kalebarren plazan.

**22:30 BATUKADA**  
Batek Fogo taldearekin. Kalegoen plazatik.

## Txiki Eguna

**ABUZTUAK 26, astelehena**

**7:30 DIANA**

Mauxitxa txarangarekin eta herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA**, Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA eta TXORIZO BANAKETA**

Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:00 HAURRENTZAKO ZEZENTXO eta PONIAK**

Aita Agirre plazan.

**Ordu berean, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**



**17:00 TXIKI EGUNEKO HERRI-BAZKARIA**

Sigman. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra kultur elkarte.

**18:00 PROFESIOALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK**

Ikastolako Frontoian.

**18:30 UZTAI TXAPELKETA**

Aita Agirre plazan.

**19:00 KALEJIRA**

Kalean txarangarekin.

**22:30 DANTZALDIA**

Lisker taldearekin, Kalegoen plazan.



[www.bronymec.com](http://www.bronymec.com)

Metal Ez-Ferrikoak  
Plastiko Teknikoak  
Konpositeak  
Mekanizazio Lanak



ZURE ALDE  
**ZA**  
ABOKATUAK

Jai zoriontsuak!

Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.  
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

**Iñaki Gil Azpillcueta**

Jausoro Plaza, 3 behea  
Tel.: 943 531 351

**Ignacio Vazquez Gonzalez**

e-mail: [zurealde@telefonica.net](mailto:zurealde@telefonica.net)  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

AHOLKULARITZA

**BIKAIN**  
ASESORIA

Tel.: 943 744 557  
Faxa: 943 740 408  
e-posta: [bikain@fonocom.es](mailto:bikain@fonocom.es)

- ① Zerga-aholkularitza
- ① Lan-aholkularitza
- ① Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea  
20780 ELGOIBAR

**zubacor**

ONDO PASA SAN BARTOLOME GARAK  
Patxi Beitia Arriola

[www.zubacor.com](http://www.zubacor.com) - [zubacor@zubacor.com](mailto:zubacor@zubacor.com)  
Tel.: 943 740 844 - Faxa: 943 742 666

**talleres**  
**ZAILDU** S/L

- Makineria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean planoekin egindako lanak.
- Prentsa Goiti eta mandrinadora AYCEren mantenimendua.

**Jai zoriontsuak  
elgoibartar guztioi!**

Santa Klara, 40  
Tel 943 74 07 60  
Faxa: 943 74 39 95





# OSASUN GIDA



## OPTIKAK

**65\07**

**IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA**

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar  
Tel: 943 743 734

**183\12**

**UZURI**

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:

9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

## MASAJEAK

**22\12**

**VICTORIA IRAEGI**

(Ez da osasun etxea)

Esku terapiak

- Kiropraxia
- Dranatzaille linfatikoa
- Osteopatia
- Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Asteleheneretik Ostiralera:  
8:00 / 14:00

San Frantzisko  
kalea, 40 (atzealdea)  
Elgoibar- Tel.: 943 740 770

## HORTZ KUNIKAK

**171\12**

**LEKU EDER**

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
lekueder@infomed.es

## OTORRINDLARIINGOZIOA

**183\12**

**UZURI**

- Entzumen protesia **BERRIA!**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:

9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

## FISIOTERAPIA

**271\12**

**AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA**

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953  
Tel.: 669 565 745

**177\12**

**fisio&más**

**Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea**

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa: + Traumatologia. + Estetika (zelulitisa, estriak)

**Osasunerako ariketa agindua**

(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

**Entrenamendu gidatua**

**Pilates makinak**

(errehabilitazioa)  
3 pertsona gehien.

**Txirindulariaren biomekanika**

(kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.

Tel.: 943 740 191  
667 953 628



# SANBARTOLOMEAK 2013

## ABUZTUAK 28, *eguztena*

**19:30** ESKUBALOIA

Sanlok antolatuta, Alcorta eta Eibar taldeen arteko partida. Olaizaga kiroldegian.

## ABUZTUAK 29, *eguztena*

**20:00** ARETO FUTBOLA

Debabarrena klubak antolatuta, Concepto Egile eta Zierbena taldeen arteko partida. Olaizaga kiroldegian.

**21:30** IDI-PROBAK

Idi gazteen probak, Sigmako aparkalekuan.

# Gazteen Eguna

## ABUZTUAK 30, *barixakua*

**8:00** DIANA

Herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA ETA TXORIZOA**

Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:30** GOITIBEHERAK

Azkue-San Roken. Antolatzailea: Zuhaitz Aisialdi Taldea. Izena ematea irteeran bertan. 14 urtetik 18ra artekoek gurasoen baimena aurkeztu beharko dute.



# Egitaraua

## Ondoren, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA



**17:00-19:30 FUTBOL PARTIDAK ZEZEN BOLAZTATUEKIN**  
Aita Agirre plazan. Antolatzailea Zuhaitz aisialdi Taldea.



**21:30 IDI-PROBAK**  
Idi gazteen probak, Sigmako aparkalekuan.

**23:00 KONTZERTUA**  
Hesian taldearen kontzertua. Teloneroak: ZZ Blues Band.  
Maalako parkean.

**24:00-3:30 ALKOHOLAREN ERABILERA ARDURATSUA**  
Alkohol tasaren frogak egiteko karpa, Maalan



**Ondo pasa  
sanbartolomeetan!**

**PSE-EE  
PSOE**






# EHORZKETA ETXEBERRIA S.L.



Zerbitzu iraunkorra: 943 74 13 27



Santa Klara, 16 behea • ELGOIBAR  
Tel: 943 741 656 / 943 740 117  
Mugikorra: 635 75 62 95  
E-posta: [tanaetxe@terra.es](mailto:tanaetxe@terra.es)

# NAVA

IN PRIMATEGIA

Telf. eta Faxa: 943 744 451 - E-mail: [nava@euskalnet.net](mailto:nava@euskalnet.net)  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



ONDO PASA  
JAIXAK....

## SANBARTOLOMEAK 2013

### Baserritarren eguna

#### ABUZTUAK 31, *zapatua*

**9:30** GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGIETORRIA  
Haritz dantzari taldeak eta Udal Txistulari Bandak harrera egingo diete Kalebarren Plazan.

**Jarraian, BALTZOLA ANAIK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**10:00** EUSKADIKO LIMOUSIN GANADUAREN TXAPELKETA  
Aita Agirre plazan.

**11:00** SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTATZEA  
Kalegoen plazan, Sallobente elkarteak antolatuta.



**11:00** GAZTA LEHIAKETA ETA SALMENTA  
Kalebarren Plazan, Kalamua elkarteak antolatuta.

**12:00** KALEJIRA  
Elgoibarko Kale kantariak giroa alaituko dute euskal abesti herrikoiekin.

**13:00** SAGARDO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA  
Kalegoen plazan.

**Ondoren, GANADU TXAPELKETAKO SARI BANAKETA**  
Kalegoen plazan.

**13:30** BERTSOLARIAK  
Meabebasterretxea, Ziarda eta Narbaiza bertsolariak, Kalebarren plazan.

**Ondoren, SARI BANAKETA**  
Gazta lehiaketako sariak banatuko dituzte. Kalebarren Plazan.

# Egitaraua

## 17:00 BALTZOLA ANAIK TRIKILARIEN KALEJIRA

## 18:00 MINTXETA MEMORIALA

San Bartolome jaietako harri-jasotze txapelketa. Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Ikastolan). Antolatzailea: Kalamua elkarte.



## 18:30 KALEJIRA

Elgoibarko kale kantariak alaituko dituzte kaleak, Euskal Herriko abesti herrikoiekin.

## 19:30 DISKO FESTA

Oihan Vega DJarekin, Kalegoen plazan.

## 21:30 IDI-PROBAK

Idi gazteen probak, Sigmako aparkalekuan.

## 23:00 DISKO FESTA

Oihan Vega DJarekin, Kalegoen plazan.

## IRAILAK 1, *domeka*

## 8:00 DIANA

Herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.

## 18:00 ZALDI-PROBAK

Hiru zaldik jardungo dute lehian, 950 kiloko harriarekin.

## IRAILAK 2, *astelehena*

## 21:30 IDI-PROBAK

Idi gazteen probak, Sigmako aparkalekuan.



**JAVIER NUÑEZek**  
*San Bartolome*  
*jai zoriontsuak*  
*opa dizkizue*  
*elgoibartar guztioi*



- INPRIMAKETA DIGITALA
- Lan komertzialak.
- Irudi korporatiboa
- Katalogoak, Liburuxkak
- Kartelak, Egutegiak
- Ezkontza gonbidapenak
- Zorion-agurrak, etab.

**TAMAINA HAUNDIKO KARTELGINTZA**



San Ignazio, 1 • ELGOIBAR • Tel.: 943 53 17 45  
jasone@jasonesg.com • www.jasonesg.com



Tel.: 943 741 011

**Jai zoriontsuak!**

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK  
EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

**Gaindi ezazu motorraren  
teorikoa 16 urte bete aurretik  
eta autoaren azterketa teorikoa  
18 urte bete aurretik!**

**Zatoz informazio eske!**



# SAN ANTOLIN JAIAK 2013

## IRAILAK 1, domeka

EGUERDIAN ARBOLA JARTZEA

## IRAILAK 2, astelehena San Antolin Eguna

11:00 MEZA ETA PROZESIOA  
ONDOREN SALDA ETA TXORIZOA BANATUKO DITUZTE  
EGUERDIAN BAZKARIA  
Usatorre tabernan.

## IRAILAK 6, barixakua

19:00 TXUPINAZOA  
ONDOREN TXAPEL JAURTIKETA LEHIAKETA  
SEGIDAN OLIBA HEZURREN JAURTIKETA LEHIAKETA  
20:00 TRIKI BERTSO KALEJIRA  
Ansorregi eta Larrañagarekin.  
21:00 AURRESKUA  
JARRAIAN BERTSO AFARIA  
Trikitolariak: Ansorregi eta Larrañaga  
Bertsolariak: Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi  
Afarirako txartelak, Usatorre tabernan daude salgai, 25 euroan.  
GOIZALDEAN TXOKOLATADA



## IRAILAK 7, zapatua

17:00 MUS TXAPELKETA  
18:00 PATATA TORTILLA LEHIAKETA  
ORDU BEREAN TIRAGOMA LEHIAKETA  
SEGIGAN UMEENTZAKO JOLASAK  
19:00 LEHIA BEREZIA  
Eibarko Urkiagaren astoa, Mendaroko giza taldearen kontra.  
ONDOREN EUSKAL IRON  
21:00 AFARIA  
Marmitakoa, eta gazta eta menbriloa. 12 euro.  
JARRAIAN GAZTAREN PISUA ASMATZEA  
ONDOREN ERROMERIA  
Laja eta Mikelekin.  
Erromerian dantza txapelketa egingo dute.  
1:00 ERRIFAREN ZOZKETA  
1. saria: Kanariar uharteetara bidaiari bi lagunentzat.  
2. saria: Janariz eta edariz beteriko karretila.  
GOIZALDEAN SORPRESA







**BARREN  
AZOKA**

*Uste duzuna  
baino gehiago!*

**ARANTXA ETA MARIAN  
FRUTADENDA**  
TEL.: 943 744 440  
Zure fruta eta barazkia  
dei batean etxean!

**MARI  
HARATEGIA**  
TEL.: 943 743 681

**AMAIA  
FRUTADENDA**  
TEL.: 635 704 712  
Etxeko banaketa,  
fruta eta barazki  
freskoak zure etxean!



**M. ANGELES  
FRUTADENDA**  
TEL.: 605 674 428  
680 989 487

Zure etxera  
banatzen dugu!

**TXILARRE barazkiak  
ELIKAGAI EKOLOGIKOAK**  
TEL.: 635 008 496  
Salmenta zuzena!  
Baserritik etxera!

**ZABALA  
FRUTADENDA**  
TEL.: 943 744 295  
Etxeko salmenta zuzena!



# DANTZA PLAZARA

**Josu Mujika elgoibartarrak sortutako koreografia bat eskainiko du Dantzaz konpainiak San Bartolome bezperan: *Naufagoak*. Lekeitioko 2011ko kaleko antzerki jaialdirako espreski sortutako lana da, Joseba Sarrionaindiaren testuetatik, eta, besteak beste, Mikel Laboak eta Jabier Muguruzak, eta Ken Zazpi eta Deabruak Teilatuetan moduko taldeek sortutako musikatik abiatutako lana. “Bizitasun handiko koreografia da, dramatismo handikoa”, aurreratu du Mujikak berak. Lekeition antzeztutakoaren egokitzapen bat da Elgoibarren ikusiko duguna.**

Ainara Argoitia



Josu Mujika koreografoa.

**J**oseba Sarrionaindiaren (lurreta, 1958) poema musikatuekin Lekeitioko Isuntza hondartzan gauzatzeko moduko dantza-ikuskitzuna prestatzeko enkargua jaso zuten Dantzaz konpainiak eta Josu Mujika koreografoak duela bi urte pasatxo. Erronka handia zen, itsasoaren presentzia eta indarra eta Sarrionaindiaren indar poetikoa uztartzea, baina bete-betean asmatu zuten. Enkargu hari erantzuteko, entzun zituzten euskal musikariek itsasoarekin lotuta sortutako kantuak, edan zuten handik eta hemendik, eta osatu zuten ikuskizuna. Ikuskizun bizia, dramatikoa eta “plastilaren antzera” edozein agertokira egokitzeko modukoa, denborak erakutsi duenez. Izan ere, hondartzan erakusteko sortua bada ere, gerora hamaika plaza eta eszenatokitan plazaratu dute *Naufagoak*. Elgoibarren, Kalegoen plazan eskainiko dute San Bartolome bezperan, 23:00etatik aurrera.

Dantzaz konpainiakoen erronka handiari heldu ziotela diogunean ez gara arinkeriaz ari. Izan ere, edonork daki hondar gainean pausoa ematea, eta are, saltaka egitea edo dantza egitea, zein nekagarria den. Dantzarietzako ez ezik koreografoarentzako ere ez zen edozelako lana. Musika hautatzeak berak bazuen bere zera. “Badira eta baziren abesti batzuk letra oso aberatsa dutenak, baina erritmo aldetik berdintsuak zirenak eta ez zutenak guk nahi genuen tentsio dramatikoa lortzeko biderik ematen”. Aukeratu zituzten, baina, itsasoan galdutako istorioa egoerak berak eskatzen zuen besteko indarrarekin kontatzeko balio zuten kantuak,

tartean Mikel Laboarenak, Ruper Ordoreikarenak, Jabier Muguruzarenak, Ken Zazpi taldearenak... Mujikak dio dantza berez simplea dela, baina musikak eta olerkiek eurek indar handia ematen diotela obrari. Lekeitioko antzeppen hartan, Dantzaz konpainiakoez gain, Karkabia Lekeitio bertako dantzariak ere parte hartu zuten.

## Drama

Hunkitzeko egindako obra da, barrua nahasten duten horietakoa, eta ikuskizunean zehar badira une batzuk bereziki gogorrak, bereziki gogoangarriak. Horietako bat da Ken Zazpiren *Gernikan* abestia sartzen duten unekoa. *Javier Gardoqui, Josefina Solozabal, Aurelio Legarreta, Catalina Arrieta, María Luíz Fierro, Aguirre (12 urte), Francisco Araluzea, Neskato erre bat, Gernikan*. *Gernikako* aire erasoan hildakoen izenak bata bestearen atzetik zerrendatzen ditu Ken Zazpiren kantuak, eta unearen gogor hori islatzen dute dantzariak, horretarako sua, bengalak, kea, serpentina gorriak eta eskura duten guztia erabiliz, tartean gorputza, jakina. Dantzariak eurek harrotzen duten hondar aleek are “ukitu estetiko berezia” ematen diote, Mujikak berak dioenez. Serpentina gorri artean txirikordatzen dira dantzariak, eta badoaz jausten, badoaz hiltzen. Eta une horretan haurrak sartzen dira eszenan, Mikel Laboaren *Xoriak* kantuko piano hotsarekin batera. *Gernikako* bonbardaketatik edota gaurko miserietatik ihes egindako naufrago metaforikoei kontsolamendua ematera edota *Gernikako* sarraski hartan hildakoen artean euren senideak bilatzera datoz haurrak. “Une hunkigarria




da. Malkoak ere isuri zituzten askok une horretan”, esan du Mujikak horren harira.

Naufragoak obran, itsasoan batela hondoratu zaien lagun talde baten istorioa baino gehiago delako kontatzen dena. Bizitzaren legeari berari ere erreparatzen dio Josu Mujikak idatzitako istorioak. “Jaio, bizi eta hil. Itsasotik dator bizia, itsasotik datoz naufragoak, eta itsasora itzultzen dira berriro ere bukaeran”, dio. Ez daudenen oroimenean, kandela batzuk eskuan hartu eta itsasora itzultzen dira dantzariak, Lekeitioko antzezpenean. Mantso-mantso doaz aurrera, hildakoen omenez piztutako kandelak ur gainean utzita, eta batean aldutzen dira gainerakoak, tartean haurrak, naufragoen ondorengoak, bizitzaren errepresentazioa. Eta bozgorailutik, Joseba Sarrionaindiaren hitzak, Eñaut Elorrieta Ken Zazpikoaren ahotsean: “Haizeak nire errautsak eramanez ditu, beste hizkuntzaz mintzo diren ezpainetaraino. Gure aitaren etxeak zutik jarraituko du, gu gabe”.

### Epe motzerako erronkak

Itsasorik ez dago Elgoibarren, baina obrak “berdin-berdin” funtzionatuko duela nabarmendu du Mujikak. “Badu zerbait obra honek sorreratik bertatik. Sortu ere, di-da sortu genuen, pare bat astean osatu genuen istorioa. Lehenengo musika lotu genuen eta joan ginen gero istorioa fintzen. Berez irten zen, eta hala sortzen diren lanek beti funtzionatzen dute”, gehitu du. Begiak ere argitzen zaizkio hizketan ari dela. “Barru-barrutik irten-dako zerbait da”, dio, eta badu ikusleari barruraino iritsiko zaien esperantza.

Lekeitioko antzeppen hark eta gerora Dantzas konpainiakok egin dituzten gainerako saioek izan duten arrakasta ikusita, ilusioz da Mujika hurrengo erronkari heltzeko. Enkargu haren atzetik iritsi zaio beste proposamen bat ere, ordukoa bezain erakargarria. Mikel Laboaren kantuekin dantza ikuskizuna sortzeko eskatu diote Lekeitiotik. “Erronka handia da. Mikel Laboa ez zelako edonor! Ez da erreza, hala ere. Laboaren kantuak motelagoak dira, eta ikusi beharko dugu nola egiten dugun tentsioa mantentzeko”, zehaztu du. Ezin ukatu eskaintza tentagarria ez denik.



*'Naufragoak'. Lekeitioko Isuntsa hondartzan estreinatutako Dantzas konpainiak Naufragoak ikuskizuna, baina orduetik hamaika agertokitan eskaini dute, dela kalean eta dela antzoki itxietan.*



*'Naufragoak' ikuskizuna, Lekeition. Arg.: dantzas*

### 'CHAMELEON'

Josu Mujikak sortutako *Naufragoak* ikuskizunaz gain *Chameleon* (kamaleoia) dantza ikuskizuna ere eskainiko du Dantzas konpainiak Elgoibarren. Hiru koreografiak osatutako ikuskizuna da *Kamaleoia*: Itzik Galiliren *Things I Told Nobody* eta *Chameleon*, eta Jacek Przybylowic-en *Few Brief Sequences*. Maiatzaren 18an estreinatuko zuten Donostiako Viktoria Eugeniaren.





## Erretratu zaharra



**1930**

Erretratu zahar hau Txomin Mujikak ekarri du BARRENERA. 1930eko sanbartolomeetan aterata dago, Mujikaneko fundizio zaharreko baratzan, San Bartolome Eguanean, hain zuzen ere. Argazkian azaltzen den hirukotea aurrekua dantzatzeko prest dago, zuriz jantzita eta abarketa zuri-gorriekin: **Jacinto (†), Bernabe (†) eta Eugenio Mujika (†) anaiak dira.**



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
 ☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**- Komunitatearen patioan bizikleta aparka dezaket?** Jabe bakoitzak komunitatearen instalazioak eta baliabide guztiak errespetatu behar ditu, eta guztiena den leku batez baliatzeko etxe jabe guztien oniritzia behar du. Horretarako, dagozkion baldintzak jarriko dituen Jabekideen Batzordeak emango dion baimena behar du.

**Gomendioa: Gai hau delikatua da, garbi dagoelako ez dela gauza bera portalean ume-aulkia, bizikleta, lorontziak edota zabor-poltsa uztea.**

**- Urtebeteen fatxada konpontzeko aparteko kuotak jarri ditugu. Obra bukatu da, eta sobratu den dirua ez da itzuli. Diru hori itzultzeko eskaria egin dezaket?** Bai Lehendakariari eska diezaiokizu, Jabeen Batzordeak hurrengo egingo duen bilerako gai-zerrendan sar dezala eta Batzorde horrek erabakiko du gero diru horrekin zer egin. Erabaki hori ugazaba guztiak onartu beharko dute. Dirua itzultzea onartzen bada, bistakoa da, ordainak egiteko erabili den diruaren portzentajea kontuan hartuko dela.

**Gomendioa: Sobratu den dirua erreserbarako uztea izan daiteke aukera bat.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





1960

Erretratu zahar hau Begoña Iriondok ekarri du BARRENERA. San Bartolome Eguneako argazkia da, meza ostean egiten zen aurrekuan ateratakoa. Normalean, nagusiek egiten zuten dantza, baina urte honetan gaztetxoek hiru bikote aukeratu zituzten dantzarako. Gazte horiek Miren Vallejo eta Pako Juaristiren etxera joaten ziren dantzan egiten ikastera, eta tokadiskoa jarrita erakusten zieten umeei dantzan. Argazkian agertzen den bikotea **Patxi Zubiaurre eta Begoña Iriondok** osatzen dute.

**ONGI** iturgintza

Ondo pasa jaietan!

BAINUGELAK • GASA • KLIMATIZAZIOA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Pedro Muguruza Etorbidea 11- behea  
20870 ELGOIBAR Gipuzkoa  
Tel.: 943 254 522 - Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com - www.ongielgoibar.com



Jai zorientsuak!



ESSER N-N1 Industrialdea  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)  
Pedro Muguruza Etorbidea, 8-6.  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 741 677  
943 203 442  
607 410 410  
www.dariobus.com  
clientes@dariobus.com





# Iñaki San Martin 'Soarte'

ARGAZKILARIA



2009an estreinatu zuen Iñaki San Martin *Soarte* argazkilariak *Apur batean sokadantza* lana, eta lau urte hauetan Euskal Herriko mugak gainditu ditu. Han eta hemen ibili ostean, Elgoibarren egongo da ikusgai, irailaren 6ra arte, Kultur Etxean. Haritz dantzari taldea da argazkietako protagonista, eta hain justu ere dantza taldeak berak eskatu dio argazkilariari jaietarako erakusketa prestatzeko, eta horrek izugarri poztu duela aitortu du argazkilariak. Abuztuaren 24an egiten den soka-dantzari buruzko 40 bat koadrok osatuko dute erakusketa. Argazki horiek eta gehiago [www.fotografiasoarte.com](http://www.fotografiasoarte.com) webgunean ere ikusi daitezke.

2009an sortu zenuen erakusketa. Zer lortu nahi zenuen lan honekin?

Elgoibarko soka-dantzaren edertasuna erakutsi nahi nuen. Haritz dantzari taldekoek lan hau egiten ari nintzela jakiterik ez nuen nahi, bestela emaitza desberdina izango zelako. Nik sortutako historia bat izatea nahi nuen, eta hala egin nuen. Urretxun estreinatu nuen erakusketa, eta ordutik leku pila batetan jarri dut ikusgai: Altsasun, Bartzelonan, Nafarroako Unibertsitatean eta Euskal Herriaren bihotzean: Gernikan. Antolatzaileek esan zidaten 300 elgoibartar izan zirela erakusketan, eta horrek ilusio handia egin zidan. Erakusketak normalean behin egin eta hor gertzen dira, baina hau aurrera doa. Shanghai, Londres edota Berlinetik ere jaso ditut erakusketa jartzeko eskaintzak.

**“Elgoibarren irudi politenatarikoa erakusten du soka-dantzak”**

## Lau urteren ostean, Elgoibarren jarriko duzu ikusgai zure lana. Pozik?

Bai, oso pozik. Haritz dantzari taldeak antolatatu du erakusketa, beraiek eskatu didate eta horrek poz handia eman dit. Protagonistek eskatu izana herrian erakusketa jartzeko ikusgai, errekonozimendu handia izan da niretzat. Herritarrek eta herriko kultur elkarteak gonbidatu nahi nituzke erakusketara, lan hau herriko eta Euskal Herriko kulturaren parte delako. Ez dago Euskal Herriko kulturarik gabe.

### Zer erakutsiko duzu erakusketa honekin?

Zaila da erakusketa honen sinopsia egitea. Herriko lan bat da, euskal kulturaren parte bat. 79 urte egingo ditu aurten soka-dantzak, eta geurea da, gure arbasoena. Ekitaldi oso berezia da, dotorea eta Elgoibarren irudi politenatarikoa erakusten du soka-dantzak. Haritzen eta txistularien lana eskertu nahi dut, izan ere, dantzariak bezain garrantzitsuak dira txistulariak. Elementu askok osatzen dute soka-dantza: Haritzeko dantzariak, txistulariak, plaza bera; Euskal Herriko eszenatokiak politena daukagu, politikariak eta herria. Horrek guztiak bat egiten du abuztuaren 24an; hori guztia da soka-dantza.

### Argazkiak baino gehiago, koadroak dirudite irudi horiek. Zein teknika erabili duzu?

Artea egin nahi nuen lan honekin, eta argazkitik pinturara joatea bururatu zitzaidan. Teknika desberdinak uztartu ditut: aerografia, pintura, eskuz eginiko ukituak eta ordenagailuz eginikoak ere bai... Gustatu zait emaitza.

### Argazki horiek guztiak liburu batean ere jaso dituzu. Zelako harrera izan du liburua?

Harrera ona izan du. Mundu osoan zehar dabil liburua, Elgoibarko irudiak za



baltzen. Soka-dantzak Elgoibarko irudi oso polita eskaintzen du, eta hori erakustea polita da. Gemikako erakusketan, adibidez, txinarrak liburuarekin etortzen ziren koadroak ikustera! Harrituta geratu nintzen. Soka-dantzari buruzko idatzizko liburuak badaude, baina erretratuen alorrean hutsune bat zegoen, eta hori betetzen saiatu naiz.

### Nola bizi dituzu sanbartolomeak kameraren atzetik?

Nire ikuspegitik ikusten ditut jaiak. Gustuko ditudan ekintzetara joaten naiz, eta badaezpada argazkiak ateratzen ditut. Batzuk dokumentu historiko bezala gordetzeko erretratzen ditut, eta beste batzuk afizioz. Argazkilaritza pasio bat da niretzat. Afizionatu moduan hasi nintzen, eta nire zaletasuna lana bilakatu zen. Oso gustura etortzen naiz lanean, eta hori oso inportantea da. Ea ez zaigun inori lanik faltatzen!

### Sanbartolomeetako zein ekintza ez duzu sekula galtzen?

Elgoibarren baldin banago, ez dut sekula galtzen soka-dantza. Sei bat urtean zehar ateratako argazkiak daude erakusketan. Sokamuturreko argazkiak ere gustatzen zaizkit, baina iaz sustoa izan nuen, eta aurten ez dakit joango naizen. Txiki Eguneko txaranga ere egoten naiz. Txiki Eguna handia da elgoibartarrentzat; adin guztietako jendearentzat. Aurten ere nire kamera zaharrarekin ikusiko nauzue jaietan.

### Nola sartu zinen argazkigintza munduan?

Torneroa nintzen ni, eta makina baten lan egiten nuen. Baina nire buruari zerbait gehiago eskatu nahi nion, eta horrela hasi nintzen. Argazkilaritza sartu eta zineman ere egin nuen lan. Zinema tesia egin nuen Italian, eta gero Espainiako zine-talde

batekin hasi nintzen lanean. *El Dorado*, *La fuga de Segovia* edota *Adiós pequeña* bezalako filmeetan jardun nuen lanean, baina etxera itzultzeko unea iritsi zen. Urte askoan zehar munduko hainbat lekutan bizi izan nintzen, baina Euskal Herria bezalakorik ez dago niretzat. Euskal kultura oso aberatsa da, polita eta munduan barrena zabaltzeko behar dugu. Ez dakigu euskal kultura kanpoan saltzen. Kulturgintza lan egiten dugunok hori guztia transmititzeko ardura daukagu; ardura handia.

### Argazkilaria ibilbidean, zein izan da zuretzako lanik gogorrena?

Oiz-eko hegazkin istripuaren ostean argazkiak ateratzea oso gogorra egin zitzaidan. Nire burua proban jarri nahi nuen, jakin nahi nuen argazkilaria bezala noraino iristeko gai nintzen, eta nahi nuen gerra erreportaje bat egin edo beste zerbait. Eta istripu hori gertatu zen orduan. Ohean nengo eta irratiz entzun nuen notizia. Kamera hartu eta hara joan nintzen. Segurtasun neurri asko gainditu behar izan nituen istripua gertatu zen tokiraino iristeko, baina lortu nuen. Lehenengo lerrotik atera nituen argazkiak. Orduan ikusi nituen argazki haiek, baina ez ditut berriz ikusi, eta ez dakit argazki horiek inoiz argitaratuko ditudan. Oso gogorra izan zen.

### Aurten Gaudifoto lehiaketan saritu zaituzte. Gustuko dituzu argazki lehiaketak?

Ez, eta gutxitan aurkeztu izan naiz, baina norberaren izena ezagutzera emateko garrantzitsua da sariak irabaztea. Sari horri esker nire izena urrutira iritsi da, eta eskaintza asko jaso ditut harez gero. Krisian gaude, eta dena da beharrezkoa.

### Etorkizunera begira zein dira zure asmoak?

Badauzkat proiektu batzuk eskuartean, baina argitaratu aurretik kontatzeak suertez txarra ematen du, beraz, nahiago dut gauza handirik ez esan. Ez dakit noiz edo non aurkeztuko ditudan lan horiek, baina gustatuko litzaidake Elgoibarren izatea.







# Jon Lizarralde

HARITZ DANTZARI TALDEKO KIDEA

**53 urte bete berri ditu Jon Lizarraldek, eta azkeneko 32ak Haritz dantzari taldeari lotuta egin ditu. San Bartolome Egunean plazan izango da berriro taldekideekin batera, soka-dantzarako prest. Aureskulari moduan, 25. aldia da soka-dantzan parte hartzen duela eta aitortu du ilusioa egiten diola. Soka-dantza “berezia” dela dio, eta gorputz-arima saiatzeko dela egun hortako zitara eta urtean zehar dituen gainerako konpromisoetara sasoian iristeko.**

**Aureskulari bezala, 25. soka dantza izango da zuretzat aurtengoa. Zer sentitzen duzu?**

Bai, hala da. Haritz dantzari taldeak 40 urte bete ditu aurretik, eta nik 32 urte egingo ditut taldean irailean. Berezia izango da aurtengoa, zalantzarik gabe. Abel Iriondo atzekulariarekin egin nuen 18 urtean aureskua, nire anaiarekin sei urtean, eta iaz, Mikel Olaizolarekin. 22. aldia izan zenean pentsatu nuen lagatzea ere, baina, fisikoki ondo sentitzen naiz, eta hemen nago, gogoz.

**Noiz hasi zinen dantzan?**

20 urterekin plazako dantzen inguruko ikastaro bat egin nuen, gurasoekin harreman handia zeukan neska batekin, eta halaxe hasi nintzen dantzan. Gure etxean lau anai-arreba gara; hiru anaiak gara dantzariak, eta arreba ez. Zaleatasun hori nondik datorrigun ez daukat argi, hala ere. Gogoa daukat, dena den, umetan, plazan dantzak egiten zirenean, koadrilakoak joaten zirela hor zehar eta ni plazan gelditzen nintzela, dantzak ikusten. Badaukat argazki bat Josu Mujika agertzen dena Lurdes Odriari dantzatzeko eta jantzi urdin batekin ageri naiz ni atzean. 21 urte bete nituenean, Haritz dantzari taldean sartzeko aukerarik ba ote zegoen galdetu nion lagun bati, eta halaxe, aukera izan nuenean, taldean sartu nintzen.

**Orain zenbat urterekin hasten diren ikusita, esan daiteke berandu hasi zinela zu dantzan.**

Bai. Haritzen bertan, kenduta bi-hiru beterrano eta Lasturko beste hiru bat neska, gainerako guztiak neure ikasle izandakoak dira.

**“Niretzat oso berezia da San Bartolome eguneko soka-dantza”**

## Dantzara iritsi izana kasualitate antzeko bat izan zen, hortaz.

Ez, ez. Ikastaro hartan koadrilako batzuk eman genuen izena eta bi edo hiru sartu ginen gero Haritzen, baina ordurako nik banukan dantzarako zaletasuna.

### Zer da zuretzako dantza?

Dena. Bizitza ematen dit neri dantzak. Dantzari esker sekulako jende pila ezagutu dut, eta dantzari esker harreman sare handia osatu dut herrian eta herritik kanpo. Gainera, bidaiatzeko aukera ere eman dit. Estatu Batuetan ere Haritz dantzari taldearen bidez izan nintzen. 1990. urtean joan ginen Abel Iriondo, Mikel Legorburu eta hirurok. Donostiako Argia taldearekin joan ginen orduan. Aukeraketa bat egin zuten, eta geu hatuatu gintuzten. Handik bost urtera Elgoibarkoekin joateko aukera izan nuen.

### Haritz dantzari taldeaz gain, beste talde batzuetan ere bazabiltza.

Bai, Debako Gure Kai taldean ere banabil. Urteekin eskarmentua ere pilatzen da, eta zerbaitean laguntzerik baldin badaukat, laguntzen diet, baina irakastera baino gehiago, dantzara joaten naiz Debara. Guk ikasturtea sanjoanetan bukatu genuen hemen, Elgoibarren. Egia da asteen behin-edo jarraitzen dugula nagusiekin entsegatzen, irailaren 7an nagusien txapelketa daukagulako Zarautzen. Iraila beteta daukagu: Zarautzen 7an, 14an, berriz, Lasturren dantzatuko dugu, eta 21-22rako Valladolideko Euskal Etxeak deitu digu, dantzarako. Eta 29an, berriz, San Miguel eguna da. Atsedeenik ez dago, beraz.

### Bistan da lesioek errespetatu zaituztela.

Bai. Aurten Nazioarteko Folklore jaialdia izango da, 27.a, eta nik orain arteko denetan dantzatu dut. Bai, zorte handia izan dut. Orain bi urte Roxasera joan nintzen oporretara bakar-bakarrik, eta gosaldurako ostean hondartzan egiten nituen ariketak, egunean hogeihogei bost minutu. Aurten hemen gelditzen banaiz ere egingo dut. Hamabost egunean ezer egiten ez baduzu igarri egiten da. Fisikoki oso ondo egon beharra dago. Hori egingo ez banu, ez nintzateke gaur dantzan arituko. Talde batean, gainera, oso garrantzitsua da denek garbi izatea berotzea eta entsegatzea oso garrantzitsua dela. Konpromiso bat hartzen bada, zorrotz bete behar da, besteekiko errespetuagatik.

### Nola bizi duzu San Bartolome eguneko soka-dantza?

San Bartolome bezpera Egunean hasten naiz ni zaintzen. Eguerdian irteten naiz txupinazorra, baina alkoholik eta apenas edaten dut, eta arratsaldean irten ere ez naiz egiten azkeneko urteetan. Baina lo ere ez dut asko egiten, urduritasunagatik. Niretzat oso berezia da San Bartolome Eguneko soka-dantza. Nazioarteko Folklore jaialdia ere bada, baina bien artean aukeratzeko eskatzen baditrate, nik San Bartolome eguneko soka-dantzaren alde egingo dut beti. Haritz dantzari taldea ere soka-dantzari segida emateko sortu zen, bereziki.

### Soka-dantzak baditu berezitasunak.

Garai batean dantza sozial bat zen soka-dantza, ligatzeko dantza. Lehenengo, plaza erabiltzeko baimena eskatzen zaie agintariei, eta gero buelta eman, eta herriari eskatzen zaio baimena. Bi aurrekulari izaten dira, eta bien arteko desafio horretan, onena aukeratzeko zuten egiten zuen agurra, eta berak eskatzen zuen zein neskeri dantza egin. Dantzan denak dauka azalpen bat, baita zapiak berak ere.

**“Asko zaintzen naiz. Gustatzen zait nire gorputza zaintzea, dantzarako sasoiaren egoteko”**

### Errosarioko Ama Birjinaren omenezko ezpata dantza ere berreskuratu zenuten, zu zuzendaritzan zeundela.

Bai, nire azkeneko egitekoa izan zen. Bederatzi urte neramatzen eta zuzendaritza laga aurretik lotu nahi nuen hori. [Juan Antonio] Urbeltz izan genuen laguntzen. Izugarritzko lana da. Edozein huskeria antolatzeak ematen du lana.

### Aurten lehenengo aldiz aureskua neskek egin dute San Pedron. Berdintasunaren aldeko keinua?

Ni oso gustura nago. Batzuetan amorruta ematen dit neskek gauza bat eskatu, eta gero beste bat egiteak, baina berdintasunaren alde egingo dut beti. Uste dut txapelketan neskak hanka mutilen parera altxatzen hasi zirenean, nirekin izan zela lehenengoz. Zer-

gatik izan behar dute ezberdinak? ‘Neska, zuek ere bai!’, esan nien. Añorgan-eta, erroperi buelo berezi bat ematen diete, neskek hanka gehiago jaso ez dezaten. Neskena beti salto txikiagoa izaten da. Oraindik dantza asko daukagu halakoak, baina ni berdintzearen aldekoa naiz. Jende nagusiarik kostatzen zaio oraindik hori ulertzea. Elgoibarren bertan ere planteatu izan dizkiet aldatetako taldeak. San Bartolome eguneko soka-dantza mutilek egiten dute orain, baina zergatik ezin da txandaka egin? Urte batean neskek eta hurrengoan mutilek? edo, San Bartolome Eguneko soka-dantza mutilek egin behar dutela erabakitzen bada, zergatik ez dute neskek egingo gauza bera San Joan bezperan, suaren bueltan? Proposatzen nien hori ere, San Joan bezpera ere egun berezia delako.

### Uste duzu herriarrek ondo hartuko luketela San Bartolome Eguneko soka-dantza neskek egitea?

Hasieran harrituko ziren beharbada, baina zergatik hartu behar dute gaizki? Herri askotan egiten da. Berdintasuna bilatu egin behar da, eta ez dugu ahaztu behar neskek mantendu dituztela dantza autoktono asko. Orain badao aldatzen hori, baina sasoi batean oso gaizki ikusia zegoen mutilak dantzarako izena ematea. *Mutila eta dantzan? Hori maritxua seguru*, pentsatzen zuten askok.

### Noiz arte jarraituko duzu dantzan?

Uztailaren 1ean 53 urte bete nituen, eta ez dakit. Asko zaintzen naiz. Pisua asko zaintzen dut, eta egia da gustatzen zaidala gorputza zaintzea ere. 53 urterekin dantzan aritzeko ezinbestekoa da hori. Gustura egiten dut, hala ere, eta ez zait kostatzen. Gai horrekin askotan berotzen naiz gazte jendearekin. Niretzat oso garrantzitsua da ordurako etortzea eta behar diren beroketa eta luzaketa guztiak ondo egitea, eta askok ez diote ematen behar besteko garrantziarik horri. San Joan egunetik joan zen igandera arte, 28 egunetik 21 egunetan aritu naiz dantzan, eta behar bezala aritzeko, gauzei duten garrantzia eman behar zaie. Gorputzak ahal duen artean jarraituko dut dantzan. Arrastaka ez naiz ibiliko, ez zait hori gustatzen, ez zait itxura txarra ematea gustatzen. Ahal dudanean bitartean jarraituko dut, eta fisikoki gehiago ematerik ez dudanean erretiratuko naiz.



**LEIGAR** ELEKTRAGAILUAK  
 MANU LEIZABE LOYOLA

TB · BIDEOA · HI-FI · DVD  
*Salmenta eta zerbitzu teknikoa*  
 Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54

Ondo pasa  
 sanbartolomeetan!

Elgoibarko Haurreskola  
 943 742 141

Haurreskolak

[www.haurreskola.net](http://www.haurreskola.net)

**XAGUA**

@XaguaClub

**SAN BARTOLOME**  
 Jai Zoriontsuak  
 opa dizkizue

*Pintxo aukera handia egunero,  
 eta astebaruan, giro bikaina*





Elgoibar Arretume BHI  
Arregitorre 2  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: 013431aa@hazkuntza.net



**Jai zorientsuak!**



***Ondo pasa sanbartolomeetan!***

***Alzola Basque Water - Altzolako Ura***

ELGOIBAR - GIPUZKOA

twitter: @BasqueWater [es]  
@AltzolakoUra [eus]

facebook: /AlzolaBasqueWater  
/AltzolakoUra







# MAALARA BEGIRA



*Ane Iturbe, Pello Errasti eta Mikel Olaizola.*

**Maalako parkearen bueltan izango da aurten ere zertaz gozatua. Kontzertuak, herri bazkaria, koadrilen arteko jolasak... denetik izango da. Gune horri lotuta, baina, bada egun bat berezia dena: Gazteen Eguna. Gazteek eurek antolatutako eguna da, eta bi dira egun horretako ekintza nagusiak: sukaldaritza lehiaketa eta ibai-jaiatsiera. Gazte Asanblaren kontua izan da orain arte, baina aurten koadrilek eurek zuzenean parte hartu dute antolatuntza lanetan.**

tiak, eta banatu dituzte ardurak. “Denon artean, bakoitzak ardura bat hartuta, errazago egingo dugu”, gehitu du Errastik berak.

Euren gogoz jardun dute Pasaixan koadrilakoek antolakuntza lanetan, baina egia da, aurten balditza ere izan dela. Egundorretan parte hartzeko aurrez lan egin beharra zegoen. Ez da kanpotik etorritako baldintza izan. Gazteek eurek euren buruari jarritakoa baizik. Halaxe, koadrila bakoitzak egiteko bat izango du egun horretan. Pasaixanekoek, esaterako, kalean-behera delakoa antolatuko dute, Kalegoen plazan hasita. Bidean, artean zehaztu gabe dituzten jolasak egingo dituzte. Iluntzean izango da hori, baina aurretik, eguerdian, elkarrekin bazkalduko dute denek, Sigman. Sukaldean dituzten abileziak ere erakutsi beharko dituzte. Tokatu izan zaie egun horretan paella egitea, marmitakoa prestatzea... baina aurten hiru osagai emango dizkiete parte hartzaileei (gazta, piperra eta tomate naturala) eta horiekin nahi dutena osatzeko aukera izango dute. Arratsaldean, Deba ibaian behera jaitsiko dira, egun horretarako sortutako baltsetan. “Sekulakoa izaten da. Lan handia hartzen dugu egun horretarako baltsa egiten. Detalle asko zaintzen ditugu, kanpotik ikusgarria izan dadin”, aitortu du Iturbek.

## Udalarekin harremanak

Ikusmin handia sortu ohi duen ekintza izaten da hori, eta iaz Udalak berak ere aitortu zien ekintza benetan arrakastasua izan zela. Udala aipatuta, haiekin duten harremanaz ere galdetu diegu gazteei, eta hurbilpen bat egon dela adierazi dute. Gazteek antolatuako jaiak noiz arte izango diren alternatibo galdetuta, ez dute dudarik izan. “Egitarau ofizialean sartzeko proposatu ziguten eta guk bi baldintza jarri genituen: batetik, Maalan egiten dugun guztia jasotzea egitarauan eta bestetik, jaien inguruko liburuxkan tarte bat emateko guri, jaien inguruko balorazioa egiteko. Bigarren hori ez dute onartu, baina”, zehaztu du Olaizolak. Borondatea badute, baina. Gaur alternatibatzat aurkezten duten egitaraua bestearen osagarri izan daitekeela sinisten dute, eta bide hori lantzen jarraitzeko konpromisoa agertu dute. Zentzu horretan, begi onez ikusi dute Gazteen Eguneko kontzertua Maalan izatea. “Hurbiltze bat izan daiteke. Egundorretan gazte jendea Maalan dabil, eta logikoena horixe zen”, zehaztu du.

**B**erezia da Gazte Eguna”. Pello Errasti eta Ane Iturbe dira, 18 eta 19 urteko bi elgoibartar, Pasaixan koadrilakoak biak, eta egitarau ofizialeatik kanpoko Gazte Egunaz ari dira, Gazte Egunaz, eta Maalako jai-guneaz. “Berezia da. Nik neuk hobeto pasatzen dut han aire librean, tabernetan entzuten ez den musika tipoa entzunez”, arrazoitu du Errastik. “Herriko koadrilen artean sortzen den giroak egiten du egun hori berezi”, gehitu du Iturbek. Apartekoa iruditzen zaie egun hori, eta horrexegatik erabaki dute antolakuntza taldean sartzea. Bistan da, hala ere, ez direla hala pentsatzen duten bakarrak. Izan ere, 25 bat lagunek, 18 koadrilak, parte hartu dute hilaren 30eko egitarau “alternatiboa” antolatzeko egin dituzten batzarretan.

Gazte Asanbladatik iritsi zitzaizen jaien antolakuntza lanetan parte hartzeko proposamena, eta konpromisoari heldu diete gazteek. “Ezin da beti besteek egingo dutenaren zain egon”, azaldu du Errastik. Aztertu dituzte aurreko urteetako egitarauak, bildu dituzte ekarpen guz-

## EGITARAUA

### 23 BARIXAKUA

SAN BARTOLOME BEZPERA  
**Eguerdian**, preso eta  
iheslarien eskubideen  
aldeko bazkaria  
**Ondoren**, Iñaki Labaka  
bakarlaria  
**Gauean**, kontzertua:  
Drumm & cat taldearekin

### 24 ZAPATUA

SAN BARTOLOME EGUNA  
**23:00** Kontzertua ON eta  
Humus taldeekin

### 25 DOMEKA

**Iluntzean**, kontzertua,  
Bizartegia taldearekin

### 26 ASTELEHENA

TXIKI EGUNA  
**19:00** Dantzaldia

### 30 BARIXAKUA

GAZTEEN EGUNA  
**Goizean**, koadrilen arte-  
ko sukaldatze lehiaketa,  
Sigmako aparkalekuan.  
**Ondoren**, bazkaria  
Arratsaldean, ibai jaitsiera  
**Iluntzean**, kalean behera  
jolas-ibilaldia. Kalegoen  
plazan hasiko da.  
**Gauean**, koadrilen arteko  
lasterketa, Maalan

### 31 ZAPATUA

**Gauean**, DJak  
Gaztetxean

OHARRA: BARREN inprenta-  
ra bidaltzeko unean itxi ga-  
be zuteb egitaraua.

# estetikaalire

- \* Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- \* Ongizate tratamenduak
- \* Masajeak
- \* Fotodepilazioa
- \* Mikropigmentazioa
- \* Manikura
- \* Solariuma
- \* ...

Upaiz zahara, 1 beheko  
Tel.: 943 531 436  
Elgoibar



Ondo pasa jaiak!



Ondo pasa jaiak!

## IRATXO

ROCK-KAFEA

San Frantzisko, 41 · Tel. 943 740 257

# Idama

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Antonio Amillaga, 6-8 beheko (sarrera Santa Ana kaleatik)  
Tel.: 943 744 026

Ondo pasa jaietan!

# Belaustegi Baserria



## JAIETXEA

San Migel Gaina z/g  
Tel. 943 74 31 02  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)

Ondo  
pasa  
jaietan!



sanbartolomeetan gozatu Belaustegin!



## Kirol argazkien lehiaketako erretratuak ikusgai, Kultur Etxean

**G**azteria Sailak, Kirol Patronatuak eta Ongarri argazkilari elkarteak antolatuta, kirol argazkien lehiaketa egin dute aurten ere. Dagoeneko aukeratu dituzte erretratu onenak, eta sariak ere banatu dituzte. Aurten 79 lan aurkeztu dituzte, eta abuztuaren 31ra arte egongo dira ikusgai, Kultur Etxean. Orri honetan batu ditugu argazkiak eta saridunen izenak.

Elgoibartarraren saria: **HAIZEA SANCHEZ. Zaldiak hondartzan.**



35 urtetik beherakoen saria: **1. saria: OIHANA CALDERON (Eibar). Trainerak.** Bigarren saria eman gabe utzi dute.



35 urtetik gorakoen saria: **1. saria: JABIER P. FERNANDEZ FERRERAS (Berango). Yerjan.**



35 urtetik gorakoen saria. **2. saria: JOSE VILA AIRAS. XVIM.**





## Kalegoengo frontoi zaharra, pilotazaleen harrobi eta erakusleiho

**K**alegoen plazan dagoen frontoian jokatu dituzte San Bartolome Eguneko profesionalen pilota partidak, betiere eguraldiak laguntzen badu. 1751n eraiki zuten frontoia, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian ez da egundaino Elgoibarkoa baino frontoi zaharrago baten eraikuntzari buruzko idatzirik aurkitu. XVIII. mendean zabaldu zen batik bat euskal pilotaren jokoa. Jasotako datuen arabera, estreinako partida 1720an jokatu zuten Iztuetan. Ez dira gaur goizeko kontuak eta elgoibartarrek kirol honekin duten harremana aspalditik datorrela erakusten dute. 1863an hartu zuten frontoiak gaur egun daukan itxura. Hortaz, 150 urte beteko direla-eta, gaur egungo pilotari onenetarikoek jokatu dute plazan abuztuaren 24an, 18:00etatik aurrera antolatu duten pilota jaialdian.

### Kanpai-hormako silarriekin eraikia

262 urte daramatza Kalegoengo frontoiak leku berean. Guztia 1750eko apirilaren 5ean hasi zen. Modu bitxian hasi ere. Parrokia eta udaletxe berria eraiki zituzteenez, plazari distira emateko frontoi bat eraikitzeko ados jarri ziren hainbat zinegotzi. Aldi berean, kanpaiak jarrita zeudeneko kanpai-horma desegokia zela uste zuteenez, eraitsi egin zuten, eta hango silarriak erabili zituzten frontoia egiteko. Hainbat bilera egin eta beharrezkoak ziren baimenak lortu ostean, parrokiko pulpitutik iragarri zuten frontoi berria eraikiko zutela, hiru igandez jarraian. Era berean, obra enkantea non egingo zen ere aditzera eman zuten. Obrak prestatutako planoari eta ezarritako arauari jarraiki egin behar ziren. Eskaintzarik hoberena egiten zuenak egiten zituen obrak. Hainbat proposamen egin ziren, eta eskaintza hoberena egin zuenak abal-emailea ere aurkeztu zuen. Hainbat atzerapenen ostean, 1751. urtean, frontoia herritarrek erabiltzeko prest zegoen. Bitxikeria gisa, 1751. urtean Elgoibarko zinegotziek debekatu egin zuten pilotan jokatzea ospakizun erlijiosoren bat zegoene-

an, eta isun zorrotzak ezarri zituzten. Urte hartatik aurrera, ezker pareta duten frontoiak ugaritu egin zirela azaltzen du Koldo Lizarralde *Kalegoengo frontoi zaharra* liburuan. “Horrexegatik ondorioztatu deza-kegu, Elgoibarkoa mota horretako frontoien aitzindari izan dela”, dio Lizarralde.

### Eibarko harriarekin inola ere ez

Urteetan birmoldaketa bat baino gehiago izan ditu frontoiak. 1839an, esaterako, frontoia hondatuta zegoela-eta, akatsak konpontzea erabaki zuten. Baina, orduan, arazo bat sortu zen; izan ere, konpontze lanak egiteko enkantearen irabazleak berri behar ziren lauzak Eibarko harrobitik ekartzea proposatu zuten. Proposamen hori ez zen, baina, herritarren gustukoa izan, eta zinegotziek harria Oiz mendiko harrobitik ekartzeko proposatu zioten enkantearen irabazleari. Obraren kostua handiagoa izango zela jakinarazi zuten arren, lanekin aurrera egiteko esan zioten zinegotziek, eta, hala, 1852an lauzak konpondu zituzten, Oiz mendiko harriekin baina.

1863. urtean frontoiaren ezker paretari garaiera handiagoa eman eta frontisa atzeratu zuten, gaur egungo neurrietara iritsi arte. Lan horiek bukatuta, urte hartan bertan, frontoiaren gainaldean dagoen plaka jarri zuten.

Plaka hori

tarteko, nahasteak sor daitezke, plakan ageri dena frontoia eraiki zuteneko urtea dela uste dezakeelako norbaitek.

### Pilotarien harrobia

Elgoibarrek pilotari ugari eman ditu historian zehar, tartean profesional gisa aritu diren asko. Koldo Lizarralde 70 pilotari aipatzen ditu liburuan, horietatik 33 zestapuntan aritu ziren, 27 esku pilotan, bi erre-montean, bi palan eta zazpi erraketarekin. Lehen edozein txokotan jokatzen zuen jendeak pilotan, baina Kalegoen plazako frontoian “hasi eta hezitakoak” dira aipaturiko pilotarietako asko.

San Bartolome egunean plazako frontoian jokatzen ziren pilota partidak oso errotuta egon izan dira betidanik, baina, eguraldi aldakorra dugula-eta aspaldi hasi ziren Ikastolako frontoian jokatzen. Esku-pilota partida eder haiek faltan sumatzen dituztenentzat ikuskizuna zen plaza gainezka ikustea. Aurten, eguraldiaren baimenarekin, plazako frontoi zaharrera itzuli-ko da ikuskizuna.

*\*Kalegoengo frontoiaren inguruko informazio osoagoa aurkituko duzue Koldo Lizarralde idatzitako ‘Kalegoengo Frontoi Zaharra’ liburuan.*





## Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO

Ilea zaintzeko Kerastase eta L'oreal tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Errosario kalea, 30  
Elgoibar  
Tele.: 943 741 492



- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Ilea mozteko, behin erabili eta botatzeko tresnak
- Legeak ezarritako higiene neurriak



Ondo pasa jaieten!



[www.peluqueriajoseantonio.com](http://www.peluqueriajoseantonio.com)

elgoibar  
ikastola



Herri ekimenetik sortua,  
herriarentzat lanean 1962tik hona

[www.elgoibarikastola.eu](http://www.elgoibarikastola.eu)

jai  
zoriontsuak!

FONTANERÍA

**Ibámar**

ITURGINTZA

Bernardo Ezenarro kalea, 2 behea  
Erakusketa/Faxa: 943 531 847  
Floren Cid: 647 463 436  
E-posta: [ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)

*Jai zoriontsuak!*



BEROGAILUA ● GASA ● GASOILA ● AIRE EGOKITUA ● ALTZARIAK  
MANPARAK ● OSAGAIK ● GREMIOEN KORDINAZIOA ● ERREFORMAK



# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 531 847  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolin, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[pagoagasa@euskalnet.net](mailto:pagoagasa@euskalnet.net)

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20





# Lanbroa

Pedro Muguruza, 5

Tel.: 943 743 811 / 943 740 806



Astelehenetik ostiralera irekita  
goizeko 6:00etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan  
goizeko 8:00etatik aurrera.



- \* Menuak
- \* Plater konbinatuak
- \* Bokatak eramateko
- \* Pintxoak



# USUA

 943 256 028  
kafetegia

# asador ibai-ondo

MENUEN KARTA

943 256 028

EGUNEKO  
MENUA

12€



- MENU BEREZIAK
- MENU BEGETARIANOAK
- MENU ZELIAKOAK

25€  
(+ BEZ)



# ONDO PASA JAIXAK!!